EUSKAL HERRIA 22

ADIERAZLE GALERIA NAGUSIA

2022ko azaroan argitaratuta

gaindegia

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

EUSKAL HERRIA 2022. ADIERAZLE GALERIA NAGUSIA

Argitaratze-data:	2022ko azaroa.
Argitaratzailea:	Gaindegia. Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Internet helbidea:	www.gaindegia.eus
Edukien diseinua, mapak eta datuak:	Asier Otxoa de Retana
Testu originalak (euskaraz):	Imanol Esnaola eta Asier Otxoa de Retana
Gaztelaniazko itzulpena:	Xabier Oleaga
Maketazioa:	Asier Otxoa de Retana
Babesleak:	

Egile-eskubideak:

2022

ADIERAZLE GALERIA NAGUSIA

gaindegia

Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

Aurkibidea

Hitzaurrea 7

DEMOGRAFIA 8

1.1. Biztanleria..... Biztanleria gutxitu egin da bigarren urtez 9
1.2. Biztanleriaren dentsitatea..... Biztanle gutxi Nafarroa Garaiko, Arabako eta Zuberoako zenbait eremutan 11
1.3. Biztanleriaren adin egitura..... Etorkin berriek moteltzen dute euskal gizartearen zahartzea 13
1.4. Jaiotzak..... Jaiotza kopuruak gainbeheran jarraitzen du 17
1.5. Heriotzak..... Ezohiko 2020 urtea eta gero, 2021 urtean heriotzak apaldu egin dira 19

EKONOMIA 22

2.1. BPG: urte arteko hazkundea ..... Ukrainako gerrak osasun larrialdi osteko susperraldia zapuztu du 23
2.2. BPGa biztanleko..... Euskal Herria lehiakortasuna galtzen ari da Europarekiko 25
2.3. Balio erantsiaren egitura..... Zerbitzuek ekonomiaren %68 bereganatzen dute 26
2.4. Ondasun eta zerbitzuen esportazioak.... Hamaika dira euskal esportazioen helmugak 28
2.5. Ondasun eta zerbitzuen inportazioak..... Hornidura-kate konplexuak ehunduta ditu Euskal Herriak 30
2.6. Ondasun eta zerbitzuen inportazioen merkataritza-balantza..... Nazioartean merkataritza-balantza positiboa da ekipo ondasunei eta autogintzari esker 31
2.7. Berrikuntza jarduerak..... Berrikuntza berrindartzen, baina ihes egindako Europako trenaren atzetik dabil oraindik 32
2.8. Lanaren produktibitatea..... Lanaren produktibitate indartsua du Euskal Herriak 33
2.9. Enpresa inbertsioa..... Enpresa inbertsioaren gainbeherarekin Euskal Herriak abangoardia izateari utzi dio 34
2.10. Lansariak ..... Lansarien pisua gutxitu egin da 2009az geroztik 35
2.11. Herritarren errenta..... Errenta erabilgarriak Europako batez bestekoa aise gainditzen du 37

GIZARTEA 38

3.1. Biztanleriaren formazio-maila ..... Goi-formazioa dute 25-64 urte bitarteko herritarren erdiek baino gehiagok 39
3.2. Herritarren jarduera..... Jarduera pandemia aurreko mailara itzuli da, baina 2011koaren azpitik jarraitzen du 41
3.3. Enplegu-maila..... Enplegu kopurua handitzen badoa ere, EB-27ren azpitik jarraitzen du 43
3.4. Langabezia-maila..... Langabeziak gora egin zuen 2021 urtean (%9,7) 46
3.5.Kontsumo prezioen bilakaera..... Energiaren prezioaren igoerak oinarrizko kontsumoa kolpatu du 48
3.6. Pobrezia arriskua 'Europa 2020' estrategiako neurketaren arabera..... Pobrezia arriskuak gora egin du Euskal Herrian 49
3.7. Gizarte babeseko inbertsioa..... Euskal Herrian babes sozialeko politiketan bi eredu daude eta Hego EHkoa Europakoa baino ahulagoa da 51

INGURUA 54

4.1. Airearen kutsadura..... Euskal herritarron berotegi-efektuko gas isurpenak, ia mundu mailakoen bikoitza 55
4.2. Aldaketa klimatikoa..... Aldaketa klimatikoa iritsi da 58
4.3. Energiaren kontsumoa eta erregaiak..... Energiaren %43 petroliotik eratorritakoa da Euskal Herrian 60
4.4. Kontsumituriko erregaien jatorria..... Gerrak asaldatutako energia merkatuaren mende 62
4.5. Elikagaien kontsumoa..... Herritarren elikadura beharrek geopolitikaren gorabeheretatik at egon beharko lukete 64
4.6. Kontsumituriko elikagaien jatorria..... Euskal Herrian atzerriko hazi, fruitu oliodun eta zereal asko kontsumitzen dira 65

Iturriak 68

Hitzaurrea

Honako adierazleen galeria hau GAINDEGIAk pandemiaren ondoren argitaratzen duen lehena da. Aurrekoa 2021ko udaberrian geratu zen. Euskal Herriaren garapen sozial eta ekonomikorako behategiak pultsuaren taupada bizirik daukala jakinarazi nahi du oraingo honekin. Eta behin abian jarrita, hurbilenetik hasita, iraganetik ikasitakoarekin jauzi eraldatzailea egin nahi luke etorkizunera. Itsatsita gera bedi nahiaren aldarria, urratsetan asmatzeko itxaropenaren eskutik.

Urtero bezala demografia, ekonomia eta gizartea atalak ezezik, Euskal Herriko adierazle galeriaren edizio honetan bada berrikuntza nabarmena, inguruari dagozkion adierazle sorta berria bildu baita bertan. Bagenekien jakin munduko lurralde industrializatuenen artean egoteak zifra beldurgarriak emango zituela gureak kutsadurari dagokionean, baina beltza zuriaren gainean irakurrita "euskal herritarron berotegi-efektuko gas isurpenak mundu mailakoen ia bikoitza" direla, ezin uka ikarak astindua eragiten diola kontzientziari. Datuagatik beragatik bai, noski, baina bereziki ozonoarekiko kalteak ekidin aldera gauzatu beharreko ahaleginaren tamainagatik. Belaunaldi berriekiko gure konpromisoak bete aldera.

Gainerakoan, demografiak azken garaietako joerak berresten ditu, besteak beste, etorkinen presentziak atal honi ematen dion ezaugarrietan zein jaiotza-tasen beherakadari dagokionean. Ezinbestean, ekonomiaren bilakaerak demografiaren gora-behera nabarmenak azaltzen ditu. Osasun krisia oraindik gainditu gabe, hor da Ukrainako gerra, eta honen haritik hidrokarburoen merkatura, energiarenera eta gainerakoetara eratorritako eragin sakona.

Gizarte atalean, ordea, azken urteetako kezkak nagusi dira: langabeziaren tasa, bereziki gazteen artekoa eta klase ertainen ezegonkortasuna, zeinen arabera jendarte multzo batean ertain klaseetatik pobreziaren eremura igarotzeko baldintzak etengabe ematen diren. Ez da dena kezkagarria atal honetan, ostera. Adierazleek diote euskal gizarteak formakuntza maila altua daukala, munduko garaienetakoa. Dena den, zertzelada nagusiez aparte, adierazle galeria honetan badira arretaz jarraitu beharreko datuak. Murgiltzera gonbidatzen zaituztegu, nahiz eta ohar arazi beharrean gauden kasu gutxi batzuetan datuak 2019koak direla eta, beste batzuetan, datuak Hego Euskal Herrira mugatzen direla. Erne kasuan kasuko oharpenetara.

Hori bai, esker oneko hitzak dira azkenak. Izurrite garaiko geraldiaren ondoreneko lehen galeria hau ezinezkoa izango zen Olaso Dorrea eta Ipar-Hegoa fundazioen babes bultzadarik gabe. Bihoakie gure estimuaren aitortza zintzoa, GAINDEGIAren memorian geratzen baita berauen eskuzabaltasunaren lorratza.

Demografia

1.1. Biztanleria

Biztanleria gutxitu egin da bigarren urtez

Biztanleriaren urte arteko hazkunde-tasa (%).
Euskal Herria.



Euskal Herriko bilakaera demografikoari erreparatuta, biztanleria hazi egin da azken hamarkadotako garai ekonomiko hazkorretan. Oraingoan, ordea, biztanleriak behera egin du bigarren urtez jarraian. Kausen artean daude, batetik, osasun larrialdiaren eztandak ekarri zituen hilkortasun handia eta migrazioen jaitsiera. Bestetik, jaiotzek gainbeheran jarraitu dute.

Gauzak horrela, azken biurtekoan biztanleriaren gainbehera nozitu duten lurraldeak ez dira gutxi. Horien artean nabarmentzekoa da Bizkaia, 10.500 biztanle galdu baititu 2020ko urtarrila eta 2022ko urtarrila bitartean. Gipuzkoak joera bera izan du, modu lausoagoan, 3.100 biztanle galdu ditu eta. Aldiz, Lapurdik eta Nafarroa Behereak etengabe irabazi dituzte biztanleak. Araban eta Zuberoan, ostera, azken urtean hasi dira agertzen biztanleria galerari buelta eman izanaren zantzuak. Garrantzitsua izango da datozen urteotan joera hori Zuberoan finkatzen den ala ez ikustea, bertan etengabekoa izan baita herritarren galera lehen mundu gerratik gaur arte.

2020 urteak 2014az geroztik indarrean zen biztanleriaren gorakadari amaiera eman zion

Euskal Herriak 3.188.691 biztanle ditu

Biztanleriaren urte arteko hazkunde-tasa, lurraldearen urbanizazio-mailaren arabera.
Euskal Herria.



1.1. Biztanleria

Biztanleriaren hazkunde-tasa (urte arteko batez bestekoa).
Euskal Herria.

1990/2000 epealdia.



2000/2010 epealdia.



2010/2020 epealdia.



2020/2021 epealdia.



Biztanleria osoa (kopuru gordina).
2021 urtea.



Euskal Herriko biztanleriaren jaitsiera hiriguneetan antzeman da, nabarmen Debabarrena eta Bilbo Handia eskualdeetan. Izan ere, aurreko urteetako joerari eutsiz, landa-eremurako migrazioek gora egin dute. Ikusteke dago, ordea, osasun larrialdiaren testuinguruan hiriguneetik landa-eremura izandako migrazioen gorakadak nolako bilakaera izango duen. Modu batean zein bestean, landa-eremuaren hazkunde demografikoa handia izan da, esaterako, Arabako Mendialdean, Ibarretan eta Trebiñun. Edonola ere, landa-eremuan joerak askotarikoak izan dira eta, bitarte horretan, biztanleria galera ez da txikia izan Garazi-Baigorrin edo Nafarroako Pirinioetan.

Biztanleria osoa (milaka pertsona).

	2000	2005	2010	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Araba	287,81	301,76	319,33	325,53	325,95	328,42	330,72	333,40	335,81	335,56	336,23
Bizkaia	1.133,10	1.136,57	1.154,10	1.149,11	1.147,90	1.148,61	1.149,91	1.152,93	1.159,72	1.154,61	1.149,16
Gipuzkoa	679,37	688,71	707,26	716,83	717,83	719,28	720,59	723,58	727,12	726,03	724,02
Lapurdi	220,50	228,47	237,08	249,85	252,49	254,17	256,88	260,19	263,18	266,24	269,08
Nafarroa Beherea	28,51	29,25	30,04	31,49	31,64	31,75	31,78	31,83	31,83	31,87	31,94
Nafarroa Garaia	543,37	593,47	636,92	640,48	640,65	643,23	647,55	654,21	661,20	661,54	663,61
Zuberoa	15,52	15,43	15,30	15,10	15,00	14,87	14,78	14,75	14,67	14,65	14,66
EUSKAL HERRIA	2.908,18	2.993,66	3.100,02	3.128,38	3.131,46	3.140,33	3.152,22	3.170,89	3.193,51	3.190,49	3.188,69
EB-27	428.473,83	434.416,27	440.660,42	443.666,81	444.802,83	445.534,43	446.208,56	446.559,28	447.485,23	447.000,55	446.828,80
Katalunia	6.283,10	6.870,82	7.463,47	7.396,99	7.408,29	7.441,14	7.488,72	7.566,43	7.652,35	7.671,25	7.679,41
Finlandia	5.171,30	5.236,61	5.351,43	5.471,75	5.487,31	5.503,30	5.513,13	5.517,92	5.525,29	5.533,79	5.548,24
Eskozia	5.067,42	5.096,77	5.246,56	5.360,27	5.388,87	5.414,72	5.436,93	5.454,24	5.494,00	5.479,90	5.466,00

1.2. Biztanleriaren dentsitatea

Biztanle gutxi Nafarroa Garaiko, Arabako eta Zuberoako zenbait eremutan

Biztanleriaren dentsitatea (bizt./km²).
2021 urtea.



Biztanleriaren dentsitatea (bizt./km²).
2022 urtea.



(*) 2021 urtea.

Hamar herritarretik sei Euskal Herriko hiriburu nagusietako bost eskualdetan bizi dira

Biztanleriaren dentsitatea handia da hiriburuetan eta hiriburuen arteko garraio-ardatz nagusietan: Durangaldean, Debabarrenan edo Plentzia-Mungian, besteak beste. Euskal Eurohiriaren hezurmamitzearen ondorioz, Bidasoa Beherean ere biztanleria dentsitatea bereziki handia da. Dentsitatea, aldiz, oso apala da Nafarroako Pirinioetan eta Aurrepirinioetan edo Arabako Mendialdean, Ibarretan eta Trebiñun. Gainera, lurralde arteko desoreka handitu baino ez du egin hamarkadaz hamarkada biztanleria galtzeak.

1.2. Biztanleriaren dentsitatea

Biztanleriaren dentsitatea (bizt./km²).
2021 urtea.





Europa bezalako lurraldeak ez dira ohikoak munduan, besteak beste, 5.000 hiri txiki eta ia 1.000 hiri handik egituratzen baitute lurraldea. Biztanleria finkatzeari begira berebiziko garrantzia dute maila ertaineko herriguneek, baina 1960az geroztik Euskal Herriko landa-eremuaz gain hustu egin da Espainiakoa, Bulgariakoa, Errumaniakoa, ekialdeko Alemaniakoa, Portugalekoa, Greziakoa, Italiakoa eta Kroaziakoa. Europako Batzordeak egoera irauli nahi du orain eta, horretarako, hiri erraldoiak garatu beharrean helburutzat du masa kritikoa lurraldean barrena finkatzea.

Biztanleriaren dentsitatea (bizt./km²).

	2000	2005	2010	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Araba	86,9	91,1	96,4	98,3	98,4	99,2	99,9	100,7	101,4	101,3	101,5
Bizkaia	507,8	509,4	517,3	515,0	514,5	514,8	515,4	516,7	519,8	517,5	515,0
Gipuzkoa	345,1	349,8	359,3	364,1	364,6	365,4	366,0	367,5	369,3	368,8	367,8
Lapurdi	255,4	264,7	274,6	289,4	292,5	294,4	297,6	301,4	304,9	308,4	311,7
Nafarroa Beherea	21,5	22,1	22,7	23,8	23,9	24,0	24,0	24,0	24,0	24,0	24,1
Nafarroa Garaia	52,3	57,1	61,3	61,6	61,7	61,9	62,3	63,0	63,6	63,7	63,9
Zuberoa	19,5	19,4	19,3	19,0	18,9	18,7	18,6	18,6	18,5	18,4	18,4
EUSKAL HERRIA	139,2	143,3	148,4	149,8	149,9	150,4	150,9	151,8	152,9	152,8	152,7
EB-27	101,4	102,8	104,3	105,0	105,3	105,4	105,6	105,7	105,9	105,8	105,8
Katalunia	195,8	214,1	232,6	230,5	230,9	231,9	233,4	235,8	238,5	239,1	239,3
Finlandia	15,3	15,5	15,8	16,2	16,2	16,3	16,3	16,3	16,3	16,4	16,4
Eskozia	63,2	63,5	65,4	66,8	67,2	67,5	67,8	68,0	68,5	68,3	68,1

1.3. Biztanleriaren adin egitura

Etorkin berriek moteltzen dute euskal gizartearen zahartzea

Biztanleriaren adin egitura.
2021 urtea.



Hiru euskal herritarretik bat 1958 eta 1979 urte bitartean jaio da. Beste era batera esanda, 43 eta 64 urte bitarteko biztanleria da ugariena Euskal Herrian, "baby boomer" deritzona. Egoera ulertzeko gakoen artean daude, batetik, 1979eko petrolio-krisia arte izandako hazkunde ekonomiko eta demografikoa eta 80tik aurrera izandako krisia, bestetik.

Biztanleriaren ezaugarri horrek erabat baldintzatzen du euskal demografia eta are ageriagoan uzten du gazte gutxi daudela. Nolanahi ere, beste estatuetatik etorritako euskal herritar berriak lanerako adinean iritsi ohi dira eta horrek gazte falta leuntzen du, baina ez belaunaldi ordezkapena orekatzeraino.

1.3. Biztanleriaren adin egitura

Biztanleriaren adin egitura, lurraldearen urbanizazio-mailaren arabera.
Euskal Herria, 2021 urtea.



Euskal geografia osoa zipriztintzen dute 1979 arteko hazkunde demografikoaren aztarnek eta landa-eremuko, zein hiriguneetako egitura demografikoetan bereziki errotua dagoen fenomenoa da. Hala ere, euskal hirigunean 20-34 urte bitarteko belaunaldien presentzia indartsuagoa da gainontzeko lurraldean baino. Aldiz, haurren presentzia, oro har euskal geografia osoan ahula izanik ere, landa-eremuan beste lurraldeetan baino indartsuagoa da.

Euskal herritarren batez besteko adina: 45 urte

Batez besteko adinak gora egiten du euskal geografiaren zenbait eremutan, bereziki Nafarroako Pirinioetan, Arabako Mendialdean eta Ibarretan, Xiberoan, Zangozaldean edota Jurramendin. Azuelo, Xabier, Lerga eta Armañantzas udalerriak dira joera horren muturreko kasuak.

Batez besteko adinak, berriz, behera egiten du nabarmen Iruñerrian eta Errobi Aturrin. Nafarroako Erribera eta Plentzia-Mungia ere Euskal Herriko batez besteko adinaren azpitik daude. Eguesibar, Berriobeiti eta Zizur muturreko egitura demografiko gaztea duten udalerriak dira.

Biztanleriaren batez besteko adina.
2021 urtea.



Ipar EHn 2019 urteko datuak aintzat hartu dira.

1.3. Biztanleriaren adin egitura

0-14 urte bitarteko biztanleria (%).

2001 urtea. 2011 urtea. 2021 urtea.



Euskal Herrian 442.200 dira 14 urtetik beherako pertsonak. Belaunaldi hauen presentzia gero eta txikiagoa da eta populazio osoaren %13,8 osatzen dute egun. Belaunaldi gazteenen presentzia indartsuagoa da euskal landa-eremuan, bereziki errepidez hiriguneekin konektagarritasun ona duten landaguneei esker. Bestelako errealitatea nozitzen dute Nafarroako Pirinioek, Zangozaldeak edo Jurramendik.

Ipar Euskal Herrian 14 urtetik beherako gazteen presentzia (%15) Hego Euskal Herrian baino indartsuagoa da, bereziki Nafarroa Beherean eta Lapurdi barnealdean. Esan daiteke, beraz, 0-14 urte bitartekoen presentzia Europar Batasunakoaren parekoa dela Ipar Euskal Herrian.

0-14 urte bitarteko biztanleria (%).

2021 urtea.



(*) Ipar EHn 2019 urteko datuak aintzat hartu dira.

0-14 urte bitarteko biztanleria (%).

	2000	2005	2010	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Araba	12,3	12,2	13,5	14,5	14,7	14,9	15,0	15,0	14,9	14,7	14,5
Bizkaia	11,5	11,6	12,7	13,3	13,4	13,4	13,4	13,3	13,1	12,9	12,7
Gipuzkoa	12,5	12,9	14,1	14,7	14,7	14,7	14,7	14,6	14,4	14,1	13,8
Lapurdi	16,3	15,6	15,2	15,3	15,3	15,2	15,2	15,0	14,9	14,9	14,9
Nafarroa Beherea	15,7	16,3	17,1	17,3	17,3	17,1	16,9	16,7	16,6	16,6	16,6
Nafarroa Garaia	13,3	14,1	15,3	15,7	15,7	15,7	15,7	15,6	15,5	15,3	15,1
Zuberoa	14,4	13,9	14,4	14,3	13,9	13,8	13,9	14,0	13,9	13,9	13,9
EUSKAL HERRIA	12,2	12,5	13,7	14,3	14,4	14,4	14,4	14,3	14,2	14,0	13,7
EB-27	-	16,0	15,4	15,3	15,3	15,3	15,2	15,2	15,2	15,1	15,1
Katalunia	13,8	14,2	15,3	16,0	16,0	15,9	15,8	15,7	15,5	15,3	15,3
Finlandia	18,2	17,5	16,6	16,4	16,4	16,3	16,2	16,2	16,0	15,8	15,8
Eskozia	18,3	17,1	16,3	16,0	15,9	15,9	15,9	15,9	15,9	15,7	15,6

Oharra: Ipar EHko azken datuak 2019 urteari dagozkio.

1.3. Biztanleriaren adin egitura

65 urtetik gorako biztanleria (%).

2001 urtea. 2011 urtea. 2021 urtea.



Euskal Herriak ez du inoiz abian den tamainako zahartze demografikorik ezagutu

Euskal herritarren %22,4k 65 urte baino gehiago ditu. Azken urteotan adinekoen gorakada handia izan da: 2000 urtean 516.800 izatetik, 2021 urtean 715.750 izatera igaro baita. Edonola ere, zahartze prozesu horrek orain arte ezagutu gabeko abiadura hartuko du datozen urteotan. Etorkin berrien migrazioek zertxobait arindu dezakete joera hori, baina ezingo dute inola ere gelditu.

Euskal hirigunean nabarmenagoa da 65 urtetik gorako herritarren presentzia, hirigunean metatu baitzen 1960 eta 70eko hazkunde demografikoa. Hala ere, adinekoen proportzioa handia da Zuberoan, baita Garazi-Baigorrin edo Nafarroako Pirinioetan. Finlandiak ere Europar Batasuneko adinekoen proportzioa gainditzen du eta Euskal Herriaren pareko egoera du egun.

65 urtetik gorako biztanleria (%).

2021 urtea.



(*) Ipar EHn 2019 urteko datuak aintzat hartu dira.

65 urtetik gorako biztanleria (%).

	2000	2005	2010	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Araba	15,4	16,2	17,3	19,0	19,5	19,8	20,1	20,5	20,7	21,1	21,4
Bizkaia	17,8	18,9	19,8	21,2	21,7	22,0	22,2	22,5	22,7	22,9	23,3
Gipuzkoa	17,1	18,0	19,0	20,6	21,0	21,3	21,6	21,9	22,2	22,4	22,7
Lapurdi	20,6	21,3	21,8	22,8	23,4	23,9	24,1	24,5	24,6	24,6	24,6
Nafarroa Beherea	22,3	22,5	22,0	23,2	23,5	24,0	24,4	24,9	25,0	25,0	25,0
Nafarroa Garaia	18,2	17,5	17,4	18,5	18,9	19,2	19,4	19,5	19,6	19,8	19,9
Zuberoa	25,4	25,8	25,9	27,4	27,8	28,2	28,6	28,9	29,0	29,0	29,0
EUSKAL HERRIA	17,4	18,1	18,8	20,2	20,6	20,9	21,2	21,4	21,7	21,9	22,1
EB-27	-	16,7	17,6	18,7	19,0	19,3	19,7	20,0	20,2	20,6	20,6
Katalunia	16,9	16,4	16,4	18,0	18,4	18,6	18,8	19,0	19,1	19,2	19,2
Finlandia	14,8	15,9	17,0	19,4	19,9	20,5	20,9	21,4	21,8	22,3	22,3
Eskozia	15,7	16,3	16,7	17,9	18,2	18,4	18,6	18,8	19,0	19,3	19,6

Oharra: Ipar EHko azken datua 2019 urteari dagokio.

1.4. Jaiotzak

Jaiotza kopuruak gainbeheran jarraitzen du

Jaiotzak (mila biztanleko).
Euskal Herria eta EB-27.



Aspaldi ari da jaiotza kopurua gutxitzen eta azken datuek joera hori berretsi baino ez dute egin. 2021 urtean 22.171 haur jaio dira, urtebete lehenago baino 272 gutxiago. Oraingoa baino jaiotza kopuru txikiagorik ez da ezagutu Euskal Herrian 1941 urtetik eta aipatzekoa da gerrengatik ez dagoela aurreko urteetako daturik.

Ikusteke dago osasun larrialdi osteko datuetan bestelako joerarik dagoen, baina epe motzean ez da sakoneko aldaketarik espero. Gainera, krisi ekonomikoek, historikoki, ugalkortasuna gutxitzea ekarri dute. Egoera honek baditu berehalako ondorioak, esaterako, hezkuntza-sisteman. Baina, batik bat, egiturazko arazoak ekarriko ditu etorkizunean. Izan ere, oraingo jaiotzen gainbehera, besteak beste, 80eko hamarkadan izandako ugalkortasun txikiaren ondorioa ere bada. Dena den, ugalkortasuna gutxitzea eragiten duten faktoreak askotarikoak dira.

Jatorri atzerritarreko biztanleriaren ugalkortasuna egoiliarrarena baino handiagoa da. Eurei esker ez da are handiagoa jaiotzen gainbehera. Esate baterako, Araban erregistraturiko jaiotzen %34 atzerriko nazionalitatea (ez-espainola) zuten emakumeen seme-alabak izan dira (EUSTAT, 2021).

Jaiotzak batez beste urtean (mila biztanleko).

2000/2010 epealdia. 2010/2020 epealdia. 2020 urtea.



1.4. Jaiotzak

Jaiotzak (mila biztanleko).
2021 urtea.



(*) 2020 urteari dagozkion datuak.
Oharra: Hego EHko datuak behin-behinekoak dira.

2020 urtea.



2008 urteko krisi ekonomikoa hastearekin batera apaltzen joan da jaiotza kopurua euskal geografia osoan. Hori hala izanik ere, Ipar Euskal Herriak (8,9 jaiotza mila biztanleko) Europar Batasunaren pareko jaiotza kopuruari eusten dio. Hego Euskal Herria, ordea, Espainia eta Italiaren arrastoan, urrun gelditzen da Europako batez bestekotik. Europan jaiotza kopurua bereziki apala da Mediterraneoko herrialdeetan eta ekialdeko Alemanian.

Jaiotzak (mila biztanleko).

	2000	2005	2010	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Araba	8,7	9,3	10,6	10,2	9,8	9,5	9,1	8,2	7,7	7,2	7,1
Bizkaia	7,8	8,9	9,2	8,5	8,1	8,0	7,4	6,9	6,7	6,3	6,0
Gipuzkoa	8,8	9,9	10,2	8,9	8,9	8,4	7,8	7,6	7,1	6,9	6,8
Lapurdi	11,0	10,3	9,9	9,9	9,4	9,5	9,1	8,8	8,8	8,6	9,0
Nafarroa Beherea	9,7	11,4	10,4	9,3	9,7	8,2	8,2	9,6	8,4	8,8	9,1
Nafarroa Garaia	9,7	10,4	10,6	9,6	9,4	9,2	8,9	8,3	8,2	7,6	7,7
Zuberoa	8,7	8,8	10,1	7,6	7,3	7,6	6,5	6,8	6,5	6,8	8,1
EUSKAL HERRIA	8,7	9,6	9,9	9,1	8,8	8,6	8,1	7,7	7,4	7,0	6,9
EB-27	10,5	10,3	10,4	9,8	9,8	9,8	9,7	9,5	9,3	9,1	9,1
Katalunia	10,1	11,6	11,3	9,7	9,5	9,3	9,0	8,5	8,1	7,6	7,5
Finlandia	11,0	11,0	11,4	10,5	10,1	9,6	9,1	8,6	8,3	8,4	9,0
Eskozia	10,5	10,7	11,2	10,6	10,3	10,1	9,8	9,4	9,1	8,5	8,7

Oharra: 2021 urtean Hego EHri dagozkion datuak behin-behinekoak dira.

1.5. Heriotzak

Ezohiko 2020 urtea eta gero, 2021 urtean heriotzak apaldu egin dira

Heriotzak (mila biztanleko).
Euskal Herria eta EB-27.



Mende hasieratik heriotzak areagotzen ari dira eta 2013az geroztik gehiago dira heriotzak jaiotzak baino. Osasun larrialdiak, gainera, joera hori indartu du. Nolanahi ere, osasun larrialdiaren arrastoa badoa gutxitzen eta, 2021 urtean, urtebete lehenago baino 2.100 heriotza gutxiago izan dira. Haatik, azken urteko heriotza kopuruak esanguratsua izaten jarraitzen du Euskal Herrian, nahiz eta Europar Batasunekoa ez gainditu.

Heriotzak batez beste urtean (mila biztanleko).

2000/2010 epealdia. 2010/2020 epealdia. 2020 urtea.



1.5. Heriotzak

Heriotza kopuru gordina (astero).
Euskal Herria, 2013ko urtarrilak 1 - 2022ko abuztuak 28.



(*) Behin-behineko datuak.

Osasun larrialdiarekin hilkortasunak ezohiko gorakada izan zuen 2020ko martxoaren 16-22 bitarteko astean. Ordura arte ezagutu gabeko heriotza kopurua izan zen 2020ko udaberrian. Ordutik ere ez da maila bereko hilkortasunik erregistratu.

Hilkortasunak, birusen eraginagatik, gora egin ohi du neguan eta behera uda sasoian. Hala gertatzen ari da 2022 urtean ere. Alabaina, azken urtean hilabete epelagoetan izandako heriotzak ohi baino gehiago izaten ari dira. Gaur gaurkoz, ez dago modurik muineko arrazoiak egiaztatu eta kuantifikatzeko: hilgarriak izan daitezkeen beste patologien detekzio goiztiarrari azken urteotan arreta gutxi eskaini izanaren ondorioak izan daitezke. Baliteke osasun eta zaintza-sistemen krisia eta aldaketa klimatikoaren kalteak izatea osasun-egoera kaskarragoa eta erikortasun desberdinak dituzten herritarren ezohiko hilkortasunaren atzean. Ziurrenik ez dago hilkortasuna bere osotasunean azaltzen duen arrazoi bakarra baina, modu batean zein bestean, egoerak nekez egin dezake hobera neguan.

Heriotzak (mila biztanleko).
2021 urtea.



(*) 2020 urteari dagozkion datuak.
Oharra: Hego EHko datuak behin-behinekoak dira.

Heriotzak (mila biztanleko).

	2000	2005	2010	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Araba	7,7	8,3	7,7	7,7	8,5	8,3	8,6	8,4	8,3	9,8	8,8
Bizkaia	9,0	9,5	9,4	9,7	10,3	10,2	10,3	10,4	10,4	11,4	10,8
Gipuzkoa	8,6	8,9	8,7	9,1	9,7	9,4	9,7	9,8	9,5	10,6	10,5
Lapurdi	9,6	10,8	10,5	10,2	11,0	10,7	11,0	11,3	10,5	11,0	11,3
Nafarroa Beherea	15,6	11,6	12,0	12,9	12,4	12,0	14,0	13,0	13,4	13,7	14,1
Nafarroa Garaia	9,1	8,8	7,8	8,6	8,9	8,9	9,1	9,0	8,5	10,1	8,7
Zuberoa	11,3	14,1	14,1	15,1	14,9	14,2	15,1	14,5	14,4	14,0	14,3
EUSKAL HERRIA	8,9	9,2	8,9	9,2	9,8	9,7	9,9	9,9	9,6	10,8	10,1
EB-27	10,0	9,9	9,9	9,9	10,4	10,2	10,5	10,5	10,4	11,6	11,8
Katalunia	9,0	9,0	8,0	8,3	8,8	8,5	8,9	8,9	8,5	10,4	9,0
Finlandia	9,5	9,2	9,5	9,6	9,6	9,8	9,8	9,9	9,8	10,0	10,4
Eskozia	11,4	10,9	10,3	10,2	10,7	10,5	10,7	10,8	10,7	11,7	11,6

Oharra: 2021 urtean Hego EHri dagozkion datuak behin-behinekoak dira..

1.5. Heriotzak

Ezohiko hilkortasuna, 2016/2019 epealdiarekin alderatuta (%).

2020 urtea.



2021 urtea.



Ezohiko hilkortasuna, 2016/2019 epealdiarekin alderatuta (%).

2020 urtea.



Osasun larrialdiak Europa osoa kolpatu bazuen ere, 2020 urtean hilkortasunak berebiziko hazkundea izan zuen iberiar penintsulako mesetan, Italiako iparraldean, Europa ekialdeko zenbait eremutan eta Euskal Herrian. 2021 urtean berriz, COVIDaren aurkako txertaketa medio, hilkortasunaren patroi geografikoa bestelakoa izan da erabat. Hilkortasunak handi izaten jarraitu du soilik txertaketa-maila txikieneko lurraldeetan.

Aski ezaguna da 2020 urtean, osasun larrialdia hastearekin bat, heriotza kopuruak gora egin zuela. Ez da hain ezaguna, ordea, heriotzen gorakadak euskal geografian izan zuen eragina. Asko izan ziren 2020 urtean hilkortasunaren gorakada nozitu zuten lurraldeak eta ezohiko hilkortasunaren muturreko kasuak dira Trebiñu, Arabako Ibarrak, Lizarraldeko Erribera, Iruñerria edo Bidasoa Garaia.

Ekonomia

2.1. BPG: urte arteko hazkundea

Ukrainako gerrak osasun larrialdi osteko susperraldia zapuztu du

BPGaren urte arteko hazkunde-tasa (%).
Euskal Herria.



2019 urtean munduko merkataritza moteltzen eta ziurgabetasun ekonomikoa gora egiten hasiak ziren. Washingtonen eta Pekinen arteko tentsio komertzialen gorakadak, Brexit-ak, eskari pribatuaren gutxitzeak edo inbertsioaren uzkurtzeak sortutako giroa nagusi zen.

Zaila zen irudikatzea, ordea, etortzear zen osasun larrialdiak lurralde askoren ekonomia azken hamarkadotako atzeraldi handienean jarriko zuela. Euskal Herriko kasura etorrita, sei urteko ekonomiaren goraldia eta gero %9,2ko atzeraldia ekarri zuen. 2021 urtean, aldiz, atzeraldiaren osteko susperraldia etorri zen, Euskal Herriko Barne Produktu Gordina (BPG) EB-27koaren gainetik handitzeraino.

Dena dela, Ukrainako gerrak Europako ekonomia eta nazioarteko aliantzak gogoz astindu ditu eta Euskal Herria ere egoera horren menpe dago. Gauzak horrela, erakunde publikoek 2022 urterako aurreikuspen ekonomikoak etengabe berrikusi dituzte beherantz.

BPGaren urte arteko hazkunde-tasa (%).

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022 (a)	2023 (a)
EUSKAL HERRIA	1,3	-3,7	0,9	0,7	-1,7	-1,4	1,5	2,8	3,0	2,8	3,0	2,3	-9,2	6,0	4,1	1,9
EB-27	0,6	-4,3	2,2	1,9	-0,7	-0,1	1,6	2,3	2,0	2,8	2,1	1,8	-5,7	5,4	2,7	1,5
Katalunia	-0,9	-4,4	0,7	-0,6	-3,2	-1,0	1,6	3,9	3,5	3,3	3,0	2,1	-11,7	5,8	4,4	1,7
Finlandia	0,8	-8,1	3,2	2,5	-1,4	-0,9	-0,4	0,5	2,8	3,2	1,1	1,2	-2,2	3,0	1,8	1,2
Eskozia	0,4	-3,2	2,1	3,9	0,4	3,2	2,4	0,2	0,5	2,0	1,1	0,7	-10,0	6,9	3,5	1,4
Alemania	1,0	-5,7	4,2	3,9	0,4	0,4	2,2	1,5	2,2	2,7	1,0	1,1	-3,7	2,6	1,4	1,3
Erresuma Batua	-0,3	-4,1	2,1	1,3	1,4	2,2	2,9	2,4	1,7	1,7	1,3	1,4	-9,3	7,4	3,4	0,0
Errusia	5,2	-7,8	4,5	4,3	4,0	1,8	0,7	-2,0	0,2	1,8	2,8	2,0	-2,7	4,7	-5,5	-4,5
AEB	0,1	-2,6	2,7	1,5	2,3	1,8	2,3	2,7	1,7	2,2	2,9	2,3	-2,8	5,9	1,5	0,5
India	3,9	8,5	10,3	6,6	5,5	6,4	7,4	8,0	8,3	6,8	6,5	4,0	-6,6	8,7	6,9	5,7
Txina	9,7	9,4	10,6	9,6	7,9	7,8	7,4	7,0	6,8	6,9	6,7	6,1	2,2	8,1	3,2	4,7
Mundua	2,1	-1,3	4,5	3,3	2,7	2,8	3,1	3,1	2,8	3,4	3,3	2,6	-3,3	5,8	3,0	2,2

(a) Lurralde bakoitzeko erakunde publikoek emandako aurreikuspen datuak. Europako estatuen kasuan Europako Batzordeko datuak aintzat hartu dira. Gainontzeko estatuetarako, hala nola mundu mailako datuetarako, iturri gisa OECD aintzat hartu da.

2.1. BPG: urte arteko hazkundea

BPGaren urte arteko hazkunde-tasa (%).

2020 urtea

Euskal Herriko BPGak %9,2ko atzeraldia izan zuen. Euskal Herriak ez ezik, Europan ere atzeraldi indartsua pairatu zuten Montenegrok, Espainiak, Greziak eta Italiak. EB-27k, ostera, BPGaren atzeraldi murritzagoa nozitu zuen.



2021 urtea

Euskal Herriko BPGak %6 egin zuen gora eta, beraz, EB-27ko susperraldia gainditu zuen. Euskal Herriko ekonomiaren susperraldia Italia eta Belgikaren parekoa izan zen.



2022 urtea

Ukrainako gerrak, urtea hasi eta gutxira, aurreikuspen ekonomiko guztiak zapuztu ditu. Azken aurreikuspenen arabera, Euskal Herriko BPGak %4,1eko hazkunde positiboa izan dezake.



2023 urtea

Europako Batzordeak ez du, momentuz, atzeraldi ekonomikorik aurreikusten. Ingurumari horretan erakunde publikoek BPGaren %1,9ko igoera aurreikusi dute Euskal Herrian. Dena dela, Alemaniako gobernuak aurreikuspenak berritu ditu eta bere ekonomia gutxinaka atzeraldian sartzea aurreikusten du orain.



2.2. BPGa biztanleko

Euskal Herria lehiakortasuna galtzen ari da Europarekiko

Euskal Herrian 31.600 eurokoa da biztanleko BPGa (2020). EB-27an kopuru hori murritzagoa da, urtean 29.900 eurokoa. Euskal Herriak, beraz, Europako batez besteko BPGa gainditzen du, baina alde hori gero eta murritzagoa da. Beheranzko joera hori zifretara ekarrita: 2010 urtean Euskal Herriko eta EB-27ko biztanleko BPGaren arteko aldea 5.100 eurokoa zen. Hamar urte beranduago, alde hori 1.700 eurokoa da.

Testuinguru horretan, ez dira gutxi Euskal Herriari aurrea hartu dioten erregioak Europan. Biztanleko BPG handieneko erregioen rankingean Euskal Herriak 2010 urtean 48. postua zuen eta hamarkada bat beranduago 73.a dagokio (2020).

Barne Produktu Gordina biztanleko (euro/urtean).

2000 urtea



2010 urtea



2020 urtea



Barne Produktu Gordina biztanleko (euro/urtean).

	2000	2005	2008	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
EUSKAL HERRIA	22.000	27.500	32.000	30.000	29.800	29.500	29.400	30.300	31.400	32.400	33.800	34.300	35.300	31.600
EB-27	18.400	22.000	25.300	24.900	25.600	25.800	26.000	26.600	27.500	28.200	29.300	30.300	31.300	29.900
Katalunia	21.800	26.700	30.100	28.100	27.700	27.400	27.600	28.600	29.900	31.000	32.400	32.700	33.500	29.600
Finlandia	22.200	26.200	31.100	29.500	30.500	30.200	29.900	29.900	30.500	31.200	32.700	33.600	34.200	33.700
Eskozia	20.200	25.300	26.900	25.700	25.900	26.900	27.600	28.700	29.600	28.800	29.200	29.600	-	-

Oharra: Erosteko Ahalmen Parekatuan.

2.3. Balio erantsiaren egitura

Zerbitzuek ekonomiaren %68 bereganatzen dute

Balio erantsiaren egitura jarduera-adarren arabera (%).
Euskal Herria.



Osasun larrialdiaren osteko industriaren suspertzeak murriztu du Euskal Herriko balio erantsian zerbitzuen sektoreari dagokion proportzioa (2021). Nolanahi ere, denbora ikuspegi zabalagotik begiratuta, joera kontrakoa da: zerbitzuek geroz eta pisu handiagoa dute euskal ekonomian. Izan ere, azken hamarkadan balio erantsia gehien handitu duten sektoreak honako hauek dira: higiezinen jarduerak, finantza eta aseguru-jarduerak, hala nola herri administrazioarena, eta gizarte zerbitzuetako jarduerak.

Balio erantsiaren egitura jarduera-adarren arabera (%). Euskal Herria.

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
OROTARA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Lehen sektorea	1,5	1,5	1,3	1,3	1,4	1,4	1,4	1,4	1,4	1,5	1,5	1,4	1,4	1,4
Manufaktura-industria	27,9	25,9	21,6	21,8	21,3	21,2	21,2	21,6	21,6	21,4	21,4	21,1	20,3	21,3
Gainontzeko industria	2,6	3,1	3,5	3,6	3,6	3,6	3,6	3,4	3,4	3,3	3,3	3,3	3,4	3,5
Eraikuntza	6,8	9,1	8,5	7,7	7,0	6,5	6,2	6,1	6,0	6,0	6,1	6,1	6,1	6,1
Zerbitzuak	61,2	60,4	65,1	65,6	66,6	67,3	67,6	67,5	67,6	67,8	67,8	68,0	68,7	67,9

2.3. Balio erantsiaren egitura

Manufaktura-industriaren balio erantsia (%).
2020 urtea.





Manufaktura-industriaren pisua gutxitzen ari da Euskal Herrian. 2001 urtean ekonomiaren %27 hartzen zuen; 2011 urtean, zifra hori %22koa izan zen. Hamarkada bat beranduago, manufaktura-industriak ekonomiaren %21 osatu du (2021). Hau da, Alemanian eta Eslovakian duenaren pareko proportzioa hartzen du manufaktura-industriak Euskal Herrian.

Edonola ere, Europar Batasuna ekialdetik zabaldu izanak ekialdeko Europako zenbait erregiotan (Bulgaria, Polonia, Txekia Errepublika eta Hungariakoetan, nagusiki) manufaktura-industriaren gorakada nabarmena eragin du. Hala, indartu egin da azken bi hamarkadotan erdialdetik ekialdera Europa zeharkatzen duen ardatza. Bien bitartean, mundu mailan geroz eta ugariagoak izan dira Asiarantz eramandako jarduerak.

Manufaktura-industriaren balio erantsia (%).

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
EUSKAL HERRIA	27,9	25,9	21,6	21,8	21,3	21,2	21,2	21,6	21,6	21,4	21,4	21,1	20,3	21,3
EB-27	19,5	17,7	16,1	16,5	16,2	16,1	16,4	17,1	17,2	17,1	17,0	16,7	16,3	16,6
Katalunia	26,9	21,9	18,9	19,0	18,8	19,2	19,5	20,0	19,9	19,8	19,7	19,3	19,6	20,3
Finlandia	27,6	24,3	19,4	18,8	16,7	16,8	16,8	17,0	16,9	17,6	16,9	16,7	16,5	16,9
Eskozia	15,8	12,5	11,7	11,6	11,3	11,2	11,3	11,0	10,8	10,4	10,2	-	-	-

2.4. Ondasun eta zerbitzuen esportazioak

Hamaika dira euskal esportazioen helmugak

Euskal Herriko ondasun eta zerbitzuen esportazioak helmugaren arabera (milioi euro).
2021 urtea.



Euskal Herriak, Euroguneko barne-merkatuak lagunduta, harreman ekonomiko indartsuak ditu Europako lurraldeekin, baina Europa ez ezik, Amerika eta Asia ere du helmuga euskal esportazioen zati handi batek. Oro har, bai munduko potentzia tradizionalekin, bai gorabidean dauden potentzia guztiekin du harremana Euskal Herriak. Esportazio horiek ekipo ondasunak, erdi-manufakturak eta autoak dira gehienbat.

Hego Euskal Herriko ondasun eta zerbitzuen esportazioak motaren arabera (%).



2.4. Ondasun eta zerbitzuen esportazioak

Euskal Herriko ondasun eta zerbitzuen esportazioak helmugaren arabera (milioi euro).
2000/2021 epealdia.



Euskal Herriko esportazioen zati handienak Espainia du helmuga, baina azken urteotan bolumen hori murrizten joan da. Bitarte horretan, Euskal Herriak Alemanian, Frantzian, Erresuma Batuan, AEBetan eta Txinan handitu ditu salmentak. Munduko herrialde gehienak dira euskal esportazioen hartzaile. Afrikakoak dira salbuespena, bertan euskal esportazioak Magrebera eta Hego Afrikara mugatzen baitira.

2021 urtean Euskal Herriko esportazioek susperraldi garrantzitsua izan zuten. Gorakada horrek 2019ko esportazio bolumena gainditu zuen behin-behineko datuen arabera, Espainiar estatuko behin betiko datuen zain gauden honetan.

Euskal Herriko ondasun eta zerbitzuen esportazioen hazkunde-tasa, helmugaren arabera (%).

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020 (p)	2021 (p)
OROTARA	-5,5	-24,6	17,2	8,5	-7,2	-2,8	4,0	1,2	-0,2	5,8	6,0	4,5	-13,0	15,8
Espainia	-16,4	-26,6	10,9	2,1	-15,0	-7,2	-4,0	4,2	1,6	4,1	1,9	8,5	-7,5	14,4
Frantzia	7,2	-19,8	17,7	11,8	1,4	-2,1	2,6	4,3	-1,0	3,3	5,2	4,5	-15,3	16,8
Alemania	3,8	-22,2	21,3	13,9	-3,7	0,9	4,2	4,3	1,0	7,2	5,8	5,7	-8,1	6,3
Erresuma Batua	-1,1	-38,3	31,0	14,2	11,1	-0,8	7,2	2,4	-6,6	8,9	4,7	34,7	-35,6	20,2
Gainontzeko Europa	2,2	-20,9	28,5	18,3	-13,3	-2,9	17,1	-1,4	1,5	5,5	13,8	-2,8	-13,0	23,9
AEB	31,5	-44,2	19,1	16,3	0,7	7,6	21,9	-1,6	-7,8	16,6	16,0	-8,6	-16,9	22,5
Mexiko	-20,4	-9,7	-0,7	41,5	26,7	-15,3	9,9	15,6	-15,5	28,1	1,1	-16,2	-16,7	2,6
Gainontzeko Amerika	6,8	-15,9	23,5	46,5	3,3	-6,0	-4,8	3,9	-14,8	13,0	-6,1	9,3	-29,4	27,3
Txina	14,3	-38,9	62,3	12,2	-12,9	17,8	19,9	-27,0	25,2	8,8	-16,3	4,4	-11,1	37,3
Gainontzeko Asia	14,6	-10,1	30,2	-11,5	7,5	-0,3	13,9	-4,7	3,0	4,6	7,2	-0,1	-12,8	1,1
Afrika	48,2	-14,8	0,3	-16,4	35,1	4,4	8,9	-17,3	2,3	-2,4	9,9	12,2	-26,4	3,6
Ozeania	36,5	-49,8	69,3	15,5	21,3	153,8	-39,9	-24,9	-9,7	44,3	48,9	-37,9	16,0	1,3

(p) Behin-behineko datuak. Esportazioen balio nominalaren gaineko hazkunde-tasa.

2.5. Ondasun eta zerbitzuen inportazioak

Hornidura-kate konplexuak ehunduta ditu Euskal Herriak

Euskal Herriko ondasun eta zerbitzuen inportazioak jatorriaren arabera (milioi euro).
2021 urtea.



Euskal Herriak kontsumitzen dituen inportazioen erdia baino gehiago Espainiar edo Frantziar estatutik datoz. Hauekin batera, Alemania, Italia eta Herbehereetako inportazioen presentzia esanguratsua da. Txina, Errusia, Mexiko eta AEB dira euskal ekonomian Europatik kanpoko inportatzaile nagusiak. Batik bat, kanpotik ekarritako erdi-manufakturak, ekipo-ondasunak eta produktu energetikoak kontsumitzen dira Euskal Herrian. Azken hamarkadotan munduko beste merkatuekiko menpekotasuna handitu du euskal ekonomiak, baina azken bi urteek agerian utzi dute nazioarteko hornidura-kateak hauskorrak izan daitezkeela.

Hego Euskal Herriko ondasun eta zerbitzuen inportazioak motaren arabera (%).



2.6. Esportazio eta inportazioen merkataritza-balantza

Nazioartean merkataritza-balantza positiboa da ekipo ondasunei eta autogintzari esker

Hego Euskal Herriko atzerriko kanpo saldoa ondasun motaren arabera (milioi euro).



Euskal Herriak merkataritza-balantza positiboa du, hau da, handiagoa da euskal esportazioen balioa inportazioena baino. Atzerriko hartu-emanari begiratuta, saldo positiboa handia da ekipo-ondasunetan, autogintzan eta erdi-manufakturetan. Elikagaietan ere saldoa positiboa da, Espainiar estatuarekiko hartu-emana alde batera utzita. Kontrara, atzerriarekiko saldoa negatiboa da produktu energetikoetan, lehengaietan eta kontsumo-manufakturetan.

Ondasun eta zerbitzuen kanpo merkataritza (BPGaren %).

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Esportazioak														
EUSKAL HERRIA	61,8	61,5	52,8	56,7	53,6	52,5	53,6	52,5	50,7	51,9	52,9	53,3	51,0	54,7
EB-27	35,7	37,4	40,3	43,2	44,8	45,0	45,7	47,1	46,7	48,4	49,2	49,3	46,5	50,5
Katalunia	61,3	49,1	44,4	46,8	49,1	48,6	48,0	47,7	46,1	47,6	47,7	47,3	49,5	51,4
Finlandia	42,0	40,3	38,4	38,9	38,8	38,0	36,5	35,4	34,8	37,5	38,5	39,9	35,9	39,4
Eskozia	55,0	49,7	52,8	53,9	52,0	52,6	51,9	51,8	51,2	53,7	53,4	52,8	50,8	-
Inportazioak														
EUSKAL HERRIA	58,5	50,6	45,9	49,4	45,8	44,1	44,9	45,9	43,0	46,3	47,5	47,6	45,6	51,7
EB-27	34,9	35,8	38,7	41,5	41,9	41,5	41,9	42,7	42,3	44,1	45,3	45,9	42,9	46,7
Katalunia	58,0	52,3	43,4	47,4	48,1	47,0	46,7	47,2	45,3	46,7	48,4	46,9	45,0	47,6
Finlandia	32,9	36,3	37,1	39,7	40,4	39,1	37,6	36,0	36,1	37,5	39,7	39,7	35,7	39,2
Eskozia	65,9	59,7	59,7	60,1	56,8	58,1	57,3	57,7	57,8	60,4	60,2	60,1	58,8	-
Merkataritza fluxuen kanpo saldoa														
EUSKAL HERRIA	3,3	10,9	7,0	7,3	7,7	8,5	8,7	6,6	7,8	5,6	5,4	5,7	5,4	3,0
EB-27	0,8	1,6	1,6	1,7	2,9	3,5	3,8	4,4	4,4	4,3	3,9	3,4	3,6	3,8
Katalunia	3,3	-3,2	1,1	-0,6	1,0	1,6	1,4	0,5	0,8	0,9	-0,7	0,4	4,5	3,8
Finlandia	9,1	4,0	1,3	-0,8	-1,6	-1,1	-1,1	-0,6	-1,3	0,0	-1,2	0,2	0,2	0,2
Eskozia	-	-10,0	-6,9	-6,2	-4,8	-5,5	-5,4	-5,9	-6,6	-6,7	-6,8	-7,3	-8,0	-
Ekonomiaren irekiera tasa														
EUSKAL HERRIA	120,3	112,0	98,7	106,1	99,4	96,6	98,4	98,4	93,7	98,2	100,4	100,9	96,6	106,4
EB-27	70,6	73,2	79,0	84,7	86,7	86,5	87,6	89,8	89,0	92,5	94,5	95,2	89,4	97,2
Katalunia	119,2	101,5	87,8	94,2	97,1	95,6	94,7	94,9	91,5	94,3	96,1	94,2	94,5	99,0
Finlandia	74,9	76,6	75,5	78,6	79,2	77,1	74,1	71,4	70,9	75,0	78,2	79,6	71,6	78,6
Eskozia	-	109,4	112,6	114,0	108,7	110,7	109,2	109,5	109,0	114,1	113,7	112,8	109,6	-

Oharrak:
Euskal Herriko datuen kalkulurako Ipar EHko datuak estimatu dira. Euskal Herriko eta Kataluniako 2019tik aurrerako datuak behin-behinekoak dira, Espainiar estatuarekiko merkataritza hartu-emanaren datuak behin-behinekoak direlako.

2.7. Berrikuntza jarduerak

Berrikuntza berrindartzen, baina ihes egindako Europako trenaren atzetik dabil oraindik

I+Gko inbertsioa (BPGaren %).
2020 urtea.



Teknologia-maila handiko jarduerak (enpleguaren %).
2021 urtea.



Ikerketa eta Garapenari bideratutako inbertsioa geroz eta handiagoa da Euskal Herrian. Hori horrela izanik ere, EB-27an I+Gra bideratutako gastuaren azpitik jarraitzen du, 2012-2015 epealdian I+Gra bideratutako inbertsioa hainbeste murriztu ostean atzeratuta jarraitzen baitu Europako testuinguruan. Puntako teknologietako enplegu kopuruan ere EB-27ren atzetik dabil Euskal Herria, nahiz eta datuen bilakaera onak agerian utzi ahalegina egiten ari dela puntako teknologiako enplegua sustatzeko.

I+Gko inbertsioa eta teknologia-maila handiko jarduerak

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
I+G gastua (BPGaren %)														
EUSKAL HERRIA	1,1	1,5	1,9	2,1	2,1	2,0	1,9	1,8	1,8	1,8	1,9	1,9	2,1	-
EB-27	1,8	1,8	2,0	2,0	2,1	2,1	2,1	2,1	2,1	2,2	2,2	2,2	2,3	-
Katalunia	1,0	1,3	1,6	1,6	1,6	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5	1,7	-
Finlandia	3,2	3,3	3,7	3,6	3,4	3,3	3,2	2,9	2,7	2,7	2,8	2,8	2,9	-
Eskozia	-	1,2	1,4	1,4	1,4	1,4	1,5	1,5	1,5	1,6	1,7	1,7	-	-
Puntako teknologietan enplegua (enpleguaren %)														
EUSKAL HERRIA	-	-	3,3	3,4	3,5	3,2	3,4	3,3	3,3	3,3	3,4	3,6	3,7	4,1
EB-27	-	-	3,7	3,8	3,8	3,8	3,8	3,8	3,9	3,9	4,0	4,1	4,5	4,8
Katalunia	-	-	4,6	4,9	4,5	4,9	4,9	4,9	4,5	4,9	4,8	4,6	5,3	5,3
Finlandia	-	-	5,9	5,8	5,8	5,9	5,9	5,9	5,6	5,7	5,8	6,1	6,6	6,3
Eskozia	-	-	3,6	3,4	3,6	3,5	3,4	3,4	3,8	4,0	3,6	3,6	-	-

2.8. Lanaren produktibitatea

Lanaren produktibitate indartsua du Euskal Herriak

Lanaren produktibitatea (euro/mila lanorduko).
2020 urtea.



(*) 2018 urtea.



2020 urtean lan egindako mila lanorduko, batez beste, 44.900 euroko ondasuna sortu zuten Euskal Herriko landunek. Osasun larrialdiaren gorabeherak medio, kopuru hori zertxobait handiagoa izan zen 2019 urtean. Euskal Herriak Suedia eta Finlandiaren pareko produktibitatea du eta, lanaren produktibitate hori, nabarmen murritzagoa da EB-27an. Produktibitateari dagokionez, Irlanda, Danimarka edo Belgika dira buru Europan.

Sektore ekonomikoen produktibitateari erreparatuta, higiezinen jarduerak, finantza eta aseguruetako jarduerak eta informazioa eta komunikazioak dira, hurrenez hurren, produktibitate handieneko sektoreak Euskal Herrian. Industrian ere lanaren produktibitatea handia da, baina ez aipatutako sektoreetan bezainbeste.

Lanaren produktibitatea (euro/mila lanorduko).

	2000	2005	2008	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
EUSKAL HERRIA	27.800	33.300	38.300	39.800	39.400	40.500	41.500	42.800	43.200	43.500	44.500	44.600	45.700	44.900
EB-27	24.500	29.600	32.700	33.700	34.700	35.400	36.100	36.600	37.600	38.100	39.200	40.100	41.200	42.100
Katalunia	25.900	30.800	34.700	35.500	36.000	37.600	38.900	39.600	40.100	40.600	41.000	40.800	41.700	41.400
Finlandia	29.400	34.100	38.800	38.700	39.800	39.500	39.800	40.200	41.300	42.100	43.900	44.200	44.500	-
Eskozia	26.200	31.700	33.300	34.800	34.800	36.000	36.300	37.200	39.100	37.600	37.600	39.200	-	-

Oharrak: Erosteko Ahalmen Parekatuan.

2.9. Enpresa inbertsioa

Enpresa inbertsioaren gainbeherarekin Euskal Herriak abangoardia izateari utzi dio

Enpresa inbertsioa (BPGaren %).
2021 urtea.



2019 urtea.



Euskal Herrian enpresa inbertsioak, hau da, Kapital Finkoaren Eraketa Gordinak (KFEG), BPGaren %23,2 osatu zuen (2021). EB-27n enpresa inbertsioa murritzagoa izan zen, BPGaren %22koa. Austria, Suedia, Belgika eta Frantzia nagusitzen dira Europan enpresa inbertsioari dagokionez. Euskal Herriak, aldiz, Norvegia eta Irlandaren pareko enpresa inbertsioa izan zuen 2021 urtean.

2009ko krisi ekonomikoaren aurretik enpresa inbertsioa BPGaren %31koa izatera iritsi zen Euskal Herrian (2007). Krisi ekonomiko horrek, ordea, enpresen inbertsioa bortizki murriztu zuen. Ordutik, inbertsioa pixkanaka handitu arren, ez du galdutakoa berreskuratu eta EB-27ko batez bestekora hurbiltzen joan da.

Enpresa inbertsioa (BPGaren %).

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
EUSKAL HERRIA	27,7	30,6	26,3	25,2	24,2	23,2	22,6	22,6	22,7	22,9	23,2	23,4	23,0	23,2
EB-27	22,8	22,0	20,7	20,8	20,3	19,8	19,8	20,2	20,4	20,8	21,2	22,2	22,1	22,0
Katalunia	24,9	26,5	20,8	18,7	16,8	15,8	16,1	16,9	17,2	17,8	18,5	18,5	18,5	18,9
Finlandia	23,1	22,9	22,3	22,6	23,1	22,0	21,5	21,2	22,7	23,3	24,1	23,8	24,0	23,7
Eskozia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

2.10. Lansariak

Lansarien pisua gutxitu egin da 2009az geroztik

Lansariak (BPGaren %).
2021 urtea.



(*) 2019 urtea.

2020 urtea.



Euskal herritarren lansariek BPG osoaren %47,4 osatu zuten 2021 urtean. Pareko zifra izan zuten EB-27an. Europan lansarien pisua handiagoa izan zen Suitza, Alemania, Islandia, Eslovenia eta Frantzian. Aldiz, pisu txikiagoa izan zuten Irlanda, Errumania, Grezia, Polonia eta Italiako BPGan.

2009tik aurrera Euskal Herriko lansariek BPGan hartzen zuten proportzioa nabarmen murriztu zen. Joera hori medio, 2018az geroztik BPGaren proportzio handiagoa hartzen dute EB-27an Euskal Herrian baino. Salbuespena 2020 urtea izan zen, hondamendi ekonomikoaren erdian, beste hainbat adierazletan bezala ez-ohiko joerak nagusitu baitziren.

Lansariak (BPGaren %).

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
EUSKAL HERRIA	48,0	48,2	49,3	49,1	48,4	47,9	47,5	47,2	47,0	47,1	46,9	46,8	49,3	47,4
EB-27	47,5	46,4	47,3	47,0	47,3	47,3	47,2	46,8	47,0	47,0	47,3	47,5	48,7	47,7
Katalunia	50,0	47,9	49,9	48,9	47,4	46,3	46,1	46,2	45,5	45,4	45,9	46,7	49,1	-
Finlandia	46,4	47,0	48,9	48,7	49,7	49,3	48,8	48,3	47,7	46,2	46,5	46,7	46,4	46,7
Eskozia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

2.10. Lansariak

Lansarien, enpresa inbertsioen eta balio erantsi gordinaren bilakaera (2000 urtea=100).
Euskal Herria.



Oharra: hiru aldagaien balio nominala aintzat hartu da.

BPGari produktuen gaineko zerga garbiak erantsi aurretiko bolumenari Balio Erantsi Gordina (BEG) deritzo. Euskal Herriko lansariek BEGarekiko osatzen duten proportzioa behatuz gero, pisu handiagoa dute administrazio publikoko eta bestelako gizarte zerbitzuetako jardueretan, hala nola arte, entretenimendu eta aisialdian eta jarduera profesionaletan. Aldiz, lansarien pisua txikiagoa da higiezinen jardueretan, lehen sektorean eta manufaktura ez den gainontzeko industrian (erauzteko industria, ura eta energia).

Hala bada ere, soldaten pisua baino txikiagoa da sektore ekonomiko guztietako enpresa inbertsioa. Enpresen inbertsioa bereziki txikia da finantza jardueretan eta arte, entretenimendu eta aisialdian. Enpresa inbertsio handiena, ostera, higiezinen jardueretan da.

Euskal Herria, 2019 urtea.



2.11. Herritaren errenta

Errenta erabilgarriak Europako batez bestekoa aise gainditzen du

Errenta erabilgarria batez beste (euro/biztanleko).
2019 urtea.



(*) 2018 urtea.



2019 urtean euskal herritarren errenta, batez beste, 20.200 eurokoa izan zen. EB-27an, zifra hori %18 txikiagoa da (-3.100). Herritarren errenta erabilgarriari dagozkion datuak dira horiek, zifrak alderagarriak izan daitezen ahalmen parekatuan emandakoak. Horien arabera, estatuen artean soilik Luxenburgo, Alemania eta Austriak gainditzen dute Euskal Herriko batez besteko errenta. Nolanahi ere, errenta handieneko erregio gehienak Europako erdialdean daude. Metropoli garrantzitsuren bat barne biltzen duten erregioek ere errenta-maila handiagoa dute.

Errenta erabilgarria batez beste (euro/biztanleko).

	2000	2005	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
EUSKAL HERRIA	13.400	16.800	18.700	17.800	17.800	17.800	17.100	17.500	17.600	18.300	18.600	19.400	19.400	20.200
EB-27	10.700	12.800	14.400	14.100	14.400	14.700	14.600	14.700	14.900	15.200	15.600	16.100	16.600	17.100
Katalunia	12.600	15.500	16.500	16.000	16.000	15.900	15.300	15.600	16.000	16.900	17.200	17.600	17.500	18.300
Finlandia	9.600	11.800	14.300	14.400	15.000	15.400	15.500	15.600	15.700	16.000	16.200	16.600	17.100	17.500
Eskozia	12.700	15.100	16.500	15.700	16.000	16.100	16.700	16.700	17.100	17.900	17.400	17.500	18.200	-

Oharra: Erosteko Ahalmen Parekatuan.

2022 Gizartea

3.1. Biztanleriaren formazio-maila

Goi-formazioa dute 25-64 urte bitarteko herritarren erdiek baino gehiagok

Bigarren mailako formazioa duen biztanleria (%).
2021 urtea.



Goi-mailako formazioa duen biztanleria (%).
2021 urtea.



Oharrak:
25-64 urte bitarteko biztanleria aintzat hartu da.
Erresuma Batuko datuak 2019 urteari dagozkio.

Lehen mailako formazio titulua duten herritarren proportzioa erdira murriztu da mende hasieraz geroztik. Bien bitartean, goi-mailako titulua dutenen proportzioa bikoizteko bidean dago. 25-64 urte bitarteko herritarren formazio-mailari buruzko datuak dira horiek.

Europarekin alderatuta, bigarren mailako titulazioa duten herritarren proportzioa apala da Euskal Herrian. Ezaugarri hori bada euskal jendartearen beste elementu bereizgarria, Europako metropolietan ohikoagoa dena. Errealitatea bestelakoa da Alemaniako erregio gehienetan eta Europako ekialde osoan, non herritarren gehiengoak bigarren mailako formazioa duen.

Biztanleriaren formazio-maila (%).



3.1. Biztanleriaren formazio-maila

Bigarren mailako formazioa duen biztanleria (%).
2021 urtea.



Goi-mailako formazioa duen biztanleria (%).
2021 urtea.



(*) 2019 urtea.

2000az geroztik lehen mailako ikasketak dituztenen proportzioa nabarmen gutxitu da. Artean, goi-mailako ikasketak dituztenen herritarrena gogoz hazi da. Joera hori are nabarmenagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino. Aldaketa horren aurrean, ordea, ezin da zehatz-mehatz jakin enplegu proportzioak bat egiten duen euskal herritarren formazioarekin. Euskal AE-n unibertsitatea amaitu duten gazteei Lanbidek buruturiko inkestak dio, ordea, ikasketak amaitu eta hiru urtera ikasketa-mailarekin bat datorren enpleguaren proportzioa zertxobait apaldu dela azken urtean (2021). Hala ere, proportzio hori %83koa da eta 2010tik nahiko egonkor mantendu da. Proportzio bera, ostera, zertxobait apalagoa da Lanbide Heziketako ikasketak burutu dituztenen artean (batez beste, %70koa).

Biztanleriaren formazio-maila (%).

	Lehen mailako ikasketak						Bigarren mailako ikasketak						Goi-mailako ikasketak					
	Orotara		Emakumeak		Gizonak		Orotara		Emakumeak		Gizonak		Orotara		Emakumeak		Gizonak	
	2011	2021	2011	2021	2011	2021	2011	2021	2011	2021	2011	2021	2011	2021	2011	2021	2011	2021
EUSKAL HERRIA	33,7	23,3	34,1	21,4	33,4	25,3	24,2	23,7	24,2	23,0	24,2	24,3	42,1	53,1	41,7	55,6	42,4	50,4
EB-27	27,0	20,7	27,6	19,9	26,4	21,4	47,6	45,9	46,0	44,0	49,2	47,8	25,4	33,4	26,4	36,1	24,4	30,7
Katalunia	45,1	34,3	43,6	31,0	46,5	37,7	22,7	22,4	22,2	22,8	23,2	22,0	32,2	43,2	34,2	46,1	30,3	40,3
Finlandia	16,3	11,1	13,7	8,6	18,8	13,5	44,4	46,6	40,5	41,2	48,2	51,7	39,3	42,3	45,7	50,2	33,0	34,8
Eskozia	21,4	-	24,4	-	18,3	-	37,1	-	31,9	-	42,6	-	41,5	-	43,7	-	39,2	-

Oharra: 25-64 urte bitarteko biztanleria aintzat hartu da. Formazio-mailaren sailkapena Europako ISCED 2011-ren araberakoa da.

3.2. Herritarren jarduera

Jarduera pandemia aurreko mailara itzuli da, baina 2011koaren azpitik jarraitzen du

Jarduera-tasa (15-64 urte bitartean).
2021 urtea.



Emakumeen jarduera-tasa (15-64 urte bitartean).
2021 urtea.



Oharra: Erresuma Batuko datuak 2019 urteari dagozkio.

2021 urtean herritarren jarduerak osasun larrialdi aurreko maila berreskuratu zuen. Gainerakoan, jarduera-tasa ez da 2011 urteko mailara iristen eta egonkor mantendu da azken hamarkadan (%72,5 eta %73,5 bitartean), nahiz eta emakumeen eta 55 urtetik gorakoen artean jarduera-tasa inoiz ez bezala hazi. Bitarte horretan, hortaz, beste kolektibo batzuen jarduera-maila apaldu egin da. Esate baterako, gazteen artean jarduera asko jaitsi da.

Jarduera-tasa.
Euskal Herria.



3.2. Herritarren jarduera

Jarduera-tasa (15-64 urte bitartean).
2021 urtea.



Emakumeen jarduera-tasa (15-64 urte bitartean).
2021 urtea.



(*) 2019 urtea.

Euskal Herriko herritarren jarduera-maila EB-27koaren parekoa da, Espainia eta Frantziaren mailakoa. Aldiz, lurralde eskandinaviarrak buru dira Europan jarduera-tasari dagokionean. Haatik, emakumeen kasuan Euskal Herriko jarduera-mailak aise gainditzen du EB-27koa, baita Espainia eta Frantziakoa ere.

Jarduera-tasa (15-64 urte bitartean).

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Orotara														
EUSKAL HERRIA	65,9	71,1	73,3	74,4	73,6	72,8	72,8	72,8	73,2	73,0	73,5	73,4	72,8	73,3
EB-27	-	68,8	70,3	70,4	71,0	71,3	71,6	71,9	72,2	72,7	73,1	73,4	72,7	73,6
Katalunia	70,1	75,0	77,4	78,1	77,7	77,9	77,8	77,6	77,7	77,3	76,8	77,2	75,4	76,7
Finlandia	76,8	74,7	74,5	74,9	75,2	75,2	75,4	75,8	75,9	76,7	77,9	78,3	78,3	78,8
Eskozia	74,2	76,2	75,7	76,4	76,0	77,0	77,5	78,0	76,8	77,1	77,4	76,9	-	-
Emakumeak														
EUSKAL HERRIA	53,5	61,7	67,1	69,5	68,8	68,3	68,7	68,8	69,6	69,2	70,4	70,8	69,6	71,3
EB-27	-	61,2	63,7	64,0	64,8	65,3	65,8	66,1	66,6	67,1	67,5	67,9	67,3	68,5
Katalunia	58,5	65,0	70,8	72,4	72,6	73,0	73,6	73,3	74,0	73,5	72,6	73,5	71,9	74,0
Finlandia	74,1	72,8	72,5	72,7	73,4	73,4	73,9	74,4	74,1	74,9	76,3	76,6	76,5	77,2
Eskozia	67,3	70,2	71,3	72,2	70,9	73,0	73,7	74,8	73,2	73,5	73,0	73,4	-	-

3.3. Enplegu-maila

Enplegu kopurua handitzen badoa ere, EB-27ren azpitik jarraitzen du

Enplegu-tasa (15-64 urte bitartean).
2021 urtea.



Helduen enplegu-tasa (55-64 urte bitartean).
2021 urtea.



Oharra: Erresuma Batuko datuak 2019 urteari dagozkio.

Azken urtean enplegu-tasa %66koa izan da Euskal Herrian, EB-27an baino bi puntu txikiagoa. Aldez edo moldez, enplegu-tasa ez da 2008 urteko mailara iristen 2013tik emendatu arren. Euskal Herriko enpleguaren hazkundean eragin handia du emakumeen eta 55 urtetik gorakoen laneratzeak. Bi kolektibo horietan enplegu-tasa inoizko handiena da Euskal Herrian.

Enplegu-tasa.
Euskal Herria.



3.3. Enplegu-maila

Enplegu-tasa (15-64 urte bitartean).
2021 urtea.



Helduen enplegu-tasa (55-64 urte bitartean).
2021 urtea.



(*) 2019 urtea.

Euskal Herriko enplegu-maila Europako estatu gehienek dutenaren azpitik dago. Grezia, Italia, Errumania, Espainia, Kroazia eta Belgikak soilik dute enplegu-maila txikiagoa. Kontrara, Herbehereetan, Islandian, Suitzan eta Norvegian dute Europako enplegu-tasa handiena. Ostera, 55 urtetik gorakoen multzoan Euskal Herriko enplegu-maila EB-27koaren pare dago ia. Azkenik, emakumeen artean Euskal Herriko enplegu-maila indartsua da Europako testuinguruan.

Enplegu-tasa.

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Orotara (15-64 urte bitartean)														
EUSKAL HERRIA	58,6	66,1	63,8	65,2	62,3	60,9	61,3	62,4	64,1	64,9	66,1	66,8	65,0	66,2
EB-27	-	62,1	63,3	63,4	63,2	63,0	63,7	64,5	65,5	66,7	67,6	68,4	67,5	68,4
Katalunia	63,9	69,8	63,7	63,0	60,1	59,8	61,9	63,1	65,5	66,9	67,9	68,6	65,8	67,8
Finlandia	68,1	68,4	68,1	69,0	69,4	68,9	68,7	68,5	69,1	70,0	72,1	72,9	72,1	72,7
Eskozia	68,5	72,1	69,4	70,2	69,8	71,4	72,8	73,4	72,7	73,9	74,4	74,1	-	-
Emakumeak (15-64 urte bitartean)														
EUSKAL HERRIA	44,4	56,1	59,4	60,5	58,3	57,0	57,9	58,9	60,4	60,6	63,1	64,1	62,3	64,4
EB-27	-	54,6	57,2	57,5	57,6	57,7	58,4	59,2	60,2	61,3	62,3	63,0	62,2	63,4
Katalunia	51,3	59,6	59,0	58,9	56,7	56,5	58,8	59,0	61,4	62,8	63,8	65,0	62,2	64,4
Finlandia	65,2	66,5	66,9	67,4	68,2	67,8	68,0	67,7	67,6	68,5	70,6	71,8	70,7	71,7
Eskozia	63,3	66,9	66,3	67,2	65,6	68,1	70,0	70,9	69,9	70,8	70,5	70,9	-	-
55-64 urte bitartean														
EUSKAL HERRIA	36,3	42,5	43,2	45,6	46,1	47,1	49,1	51,3	52,9	53,6	53,7	55,3	58,0	59,5
EB-27	-	40,0	44,7	45,9	47,4	48,8	50,5	52,1	54,2	56,1	57,8	59,1	59,6	60,5
Katalunia	41,4	48,7	48,6	49,4	48,1	47,5	48,7	50,6	54,1	54,3	56,3	58,1	59,5	60,2
Finlandia	41,2	52,7	56,2	57,0	58,2	58,5	59,1	60,0	61,4	62,5	65,4	66,8	67,5	68,3
Eskozia	44,7	54,6	55,7	55,7	57,0	59,7	60,7	60,0	61,9	63,2	63,2	63,3	-	-

3.3. Enplegu-maila

Lanaldi partzialen hedadura-maila (enplegu osoaren %). 2021 urtea.



Lanaldi partzialen feminizazio-maila (%). 2021 urtea.



Oharra: Erresuma Batuko datuak 2019 urteari dagozkio.

Lanaldi partzialen presentzia handiagoa da egungo lan merkatuan duela bi hamarkadakoan baino. Bide horretan, Euskal Herrian lanaldi guztien %15 partzialak izan ziren azken urtean (2021). Azken sei urteotan, ordea, pixkanaka gutxitzen joan dira. Joera honen atzean bi dira arrazoiak: 25-44 urte bitartekoen artean lanaldi partzialen bolumena gutxitu da (bereziki, emakumeen artean) eta lanaldi osoko enplegua 45 urtetik gorakoen artean indarrez hazi da (emakumeen artean gizonen artean baino gehiago). Ondorioz, lanaldi partzialen feminizazioak handia izaten jarraitu arren, ez dago hamar urte lehenagoko mailan.

EB-27an eta Europako lurralde askotan lanaldi partzialek duten ezarpen-maila Euskal Herrian baino handiagoa da, bereziki Herbehereetan, Suitzan, Austria eta Alemanian. Azken horretan, esaterako, lanaldi partzialen diru-sarrera murritzak konpentsatzeko diru-laguntza sistema oso bat dago, pandemia garaian Espainiak ERTE edo ABEEetarako erreferente gisa hartu zuena.

Lanaldi partzialen hedadura-maila (enplegu osoaren %). Euskal Herria.



3.4. Langabezia-maila

Langabeziak gora egin zuen 2021 urtean (%9,7)

Langabezia-tasa (15 urtetik gora).
2021 urtea.



Gazteen langabezia-tasa (15-24 urte bitartean).
2021 urtea.



Oharra: Erresuma Batuko datuak 2019 urteari dagozkio.

2021 urteak %9,7ko langabezia-tasa utzi zuen Euskal Herrian. Urtebete lehenagoko zifrarekin alderatuta langabeziak leunki egin zuen gora, baina badira lau urte %10eko langaren azpitik dagoela. 2022 urtean, bestalde, ez da langabeziaren igoerarik aurreikusten. Nolanahi ere, Europan Espainiak, Greziak eta Serbiak soilik gainditzen dute Euskal Herriko langabezia-maila. Aipatzekoa da Kataluniak ere langabezia-tasa handiagoa duela. EB-27ren kasuan, berriz, langabezia-tasa %7koa izan zen 2021 urtean.

Azken urteko langabeziaren igoera mugatuak 45 urtetik gorako herritarrei eragin die, bereziki 55 urtetik gorako emakumeei. Aitzitik, 34 urtetik beherako gazteen artean langabezia-tasak behera egin du, emakumeen artean sendo.

Langabezia-tasa.
Euskal Herria.



3.4. Langabezia-maila

Langabezia-tasa (15 urtetik gora).
2021 urtea.



Gazteen langabezia-tasa (15-24 urte bitartean).
2021 urtea.



(*) 2019 urtea.

Gazteena da, oraindik ere, langabezia-maila handiena pairatzen duen kolektiboa: Euskal Herriko 24 urtetik beherako gazteen artean langabezia-tasa %28,5ekoa izan zen 2021ean. EB-27an, ordea, zifra hori %17koa izan zen. Europan Grezia, Espainia, Italia eta Kataluniako gazteek soilik pairatzen dute Euskal Herriko gazteek baino langabezia handiagoa.

Emakumeen artean ere langabezia-tasa handiagoa da Euskal Herrian (%9,7) Europan baino. Horregatik, ez dira asko Euskal Herriko emakumeen langabezia-tasa baino handiagoa duten estatuak (Grezia, Espainia, Serbia eta Italia). Alabaina, aspaldiko partez emakumeen langabezia-tasa, gutxigatik bada ere, gizonenaren azpitik egon zen 2021 urtean. Denboran zortzi urte egin behar da atzera Euskal Herrian halakorik ikusteko.

Langabezia-tasa (15 urtetik gora).

	2000	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Orotara														
EUSKAL HERRIA	10,9	7,1	10,7	12,1	15,1	16,2	15,5	14,0	12,2	10,8	9,8	8,8	9,3	9,7
EB-27	-	9,6	9,9	9,9	10,9	11,4	10,9	10,1	9,1	8,2	7,3	6,7	7,1	7,0
Katalunia	8,8	6,9	17,7	19,2	22,5	23,1	20,3	18,6	15,7	13,4	11,5	11,0	12,6	11,6
Finlandia	11,1	8,4	8,4	7,8	7,7	8,2	8,7	9,4	8,8	8,6	7,4	6,7	7,8	7,7
Eskozia	7,6	5,3	8,2	8,0	8,0	7,2	5,9	5,8	5,1	4,1	3,8	3,5	-	-
Emakumeak														
EUSKAL HERRIA	16,9	9,1	11,2	12,7	15,1	16,3	15,5	14,3	13,0	12,0	10,0	9,2	10,1	9,7
EB-27	-	10,6	10,0	10,2	11,1	11,6	11,1	10,2	9,4	8,5	7,6	7,1	7,4	7,4
Katalunia	12,4	8,3	16,5	18,5	21,7	22,4	20,0	19,4	16,9	14,4	12,1	11,5	13,4	12,9
Finlandia	12,0	8,6	7,6	7,1	7,1	7,5	8,0	8,8	8,6	8,4	7,3	6,2	7,5	7,1
Eskozia	5,9	4,8	6,9	6,9	7,3	6,7	5,0	5,1	4,5	3,6	3,3	3,3	-	-
Iraupen luzeko langabezia														
EUSKAL HERRIA	4,9	1,7	3,3	4,9	6,3	7,4	8,3	7,2	6,2	5,0	4,5	3,3	2,8	3,8
EB-27	-	4,5	4,0	4,4	5,0	5,5	5,5	5,0	4,4	3,8	3,3	2,8	2,5	2,7
Katalunia	4,2	1,5	7,4	8,9	11,0	12,1	11,4	10,4	8,4	6,3	4,7	4,1	3,6	4,8
Finlandia	2,7	2,1	2,0	1,7	1,6	1,7	1,9	2,3	2,3	2,1	1,6	1,2	1,2	1,8
Eskozia	2,4	1,2	2,7	2,7	2,9	2,6	2,2	1,8	1,5	1,1	1,1	1,0	-	-

3.5. Kontsumo prezioen bilakaera

Energiaren prezioaren igoerak oinarrizko kontsumoa kolpatu du

Kontsumo prezioen indizea (urte arteko hazkunde-tasa).



2020 urtean pandemiaren hasierak Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) jaitsiera eragin zuen Hego Euskal Herrian. Artean, KPI egonkor mantendu zen Ipar Euskal Herrian, baina 2021 urtean energiaren prezioa bortizki gorabidean hasi eta produktu gehienen prezio igoera eragin zuen, bereziki etxebizitza eta garraioarenak. Hori gutxi balitz, azken urtean egoera okertu besterik ez da egin, Ukrainako gerrak mundu mailako krisi energetikoa eta Euskal Herriko kanpo energiaren menpekotasuna are ageriago utzi baititu.

Energiaren prezioaren igoerak oinarrizko kontsumoko produktu guztiei eragin die. Beraz, gastua oinarrizko kontsumora mugatuen duten etxeguneetan sumatzen da gehien prezioen garestitzea. Beste era batera esanda, prezioen gorakada errenta-maila apaleneko etxeguneetan nabarmenagoa izaten ari da. Etxebizitzari lotutako gastuen bat-bateko gorakada ez ezik, elikagaien prezioena ere ekarri du.

Kontsumo prezioen indizea (urte arteko hazkunde-tasa).

	HEGO EH								IPAR EH (*)							
	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022 (**)	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022 (**)
INDIZE OROKORRA	0,2	1,6	1,0	1,1	1,2	-0,4	6,4	8,8	0,3	0,8	1,2	1,9	1,6	0,0	3,4	6,2
Janari eta edari alkoholgabeak	2,2	0,7	1,4	0,7	2,4	1,7	4,8	14,1	0,5	0,7	1,4	2,6	2,1	1,1	1,4	10,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,0	0,9	1,7	1,2	0,0	-0,0	1,5	4,5	0,6	0,3	3,3	7,4	8,8	6,8	0,4	2,1
Jantziak eta Oinetakoak	0,5	0,9	0,4	0,9	0,9	0,7	1,1	3,8	-0,2	0,0	0,0	-0,3	-0,3	-3,1	3,2	2,6
Etxebizitzenak	-1,9	0,4	1,1	2,9	-5,0	-0,2	24,2	15,8	-0,2	1,1	1,4	2,7	1,2	-0,4	6,8	9,7
Etxeko tresneria	0,3	0,5	-0,7	0,6	1,0	0,6	3,2	8,3	0,5	-0,7	-0,1	0,2	0,2	0,3	2,3	7,2
Medikuntza	1,0	0,5	0,5	0,7	1,3	0,3	1,4	1,0	-0,7	-0,5	0,4	-0,1	-0,1	0,4	-0,5	1,1
Garraioa	-2,5	4,8	1,8	0,1	5,7	-4,3	10,2	8,6	-1,2	1,8	2,9	3,0	2,4	-2,7	6,4	7,1
Komunikazioak	0,5	3,3	0,2	2,2	0,6	-4,0	-0,3	-2,5	1,0	0,6	-4,1	-5,0	0,6	0,2	2,3	-0,2
Aisia eta kultura	0,1	1,0	-0,6	-0,3	0,6	-2,2	2,2	3,8	0,9	-0,2	0,5	0,8	0,7	0,6	2,3	3,6
Irakaskuntza	0,7	1,0	1,4	0,9	1,2	0,7	0,1	1,8	1,7	2,6	1,9	2,3	2,3	2,0	2,3	3,4
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,8	1,4	2,0	1,9	1,5	1,0	3,0	7,3	1,6	1,8	1,4	1,9	1,6	0,1	2,3	4,5
Besteak	1,8	1,9	0,3	1,0	1,4	1,0	2,2	4,0	1,3	1,0	1,3	1,3	0,8	0,4	2,7	3,0
Produktu energetikoak	-7,1	5,4	2,0	2,2	-0,6	-6,5	40,0	22,9	-4,5	4,1	4,9	8,0	2,4	-6,9	19,3	18,8

(*) Ipar EHko datuak Frantziar estatuari dagozkio.
(**) 2022ko iraila arteko datuak aintzat hartu dira.

3.6. Pobrezia 'Europa 2020' estrategiako neurketaren arabera

Pobrezia arriskuak gora egin du Euskal Herrian

Pobrezia arrisku-maila (%).
2021 urtea.



Oso lan-intentsitate txikiko etxeguneetan bizi den biztanleria (%).
2021 urtea.



Oharra: Erresuma Batuko datuak 2019 urteari dagozkio.

Euskal herritarren %12 pobrezia arriskuan bizi da (2021). Zifra horren atzean Europako Batzordeak aspaldian, "Europa 2020" estrategiapean, diseinaturiko metodologia dago. 2021 urtean urtebete lehenago baino 50.000 euskal herritar gehiago bizi ziren pobreziaren mehatxupean. Hau da, orotara 380.200 dira egun pobrezia arriskuan dauden euskal herritarrak. Ezbairik gabe, bizitzaren garestitzeak zerikusi handia izan du pobreziaren igoeran. Hala eta guztiz ere, Europako lurralde askotan pobrezia arriskua Euskal Herrian baino handiagoa da.

Pobrezia 'Europa 2020' estrategiako neurketaren arabera (%).
Euskal Herria.



3.6. Pobrezia 'Europa 2020' estrategiako neurketaren arabera

Pobrezia arrisku-maila (%).
2021 urtea.



Oso lan-intentsitate txikiko etxeguneetan bizi den biztanleria (%).
2021 urtea.



Aurreko krisi ekonomikoan, batik bat 2012-2016 epealdian, handia izan zen lan intentsitate txikiaren ondorioak pairatu zituen etxeguneen proportzioa, baina ordutik lan intentsitate txikiaren itzala gutxitzen joan da Euskal Herrian. Zentzu horretan, `Europa 2020´ estrategiapeko pobreziari buruzko adierazle gehienek Euskal Herriari buruz eskaintzen duten ikuspegia Europako beste lurralde askorena baino hobea da. Horrek ez du zenbait zifraren handitasuna ukatzen: adibidez, 2020 urtean 445.900 ziren pobrezia edo gizarte bazterketa arriskuan zeuden euskal herritarrak. Horien artean 167.600 ziren gabezia material larria pairatzen zutenak.

Pobrezia 'Europa 2020' estrategiako neurketaren arabera.
Euskal Herria.

	2004	2007	2009	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Biztanleria (%)														
Lan intentsitate txikiko etxeguneetan bizi den biztanleria (<60 urte)	7,1	6,0	5,4	8,7	10,2	11,5	11,0	12,2	12,1	7,8	7,4	9,1	7,7	7,8
Gabezi material larria	1,6	1,8	3,3	4,2	2,8	3,9	4,1	4,1	4,1	3,0	3,9	3,5	5,2	-
Pobrezia arriskua	11,7	11,1	9,8	12,6	12,1	10,7	10,8	10,9	9,4	9,7	9,1	9,9	10,4	11,9
Pobrezian edo gizarte bazterketan erortzeko arriskuan dagoen biztanleria	15,8	14,7	14,2	17,7	16,7	16,4	15,4	16,7	15,5	14,5	12,7	14,2	14,0	-
Kopuru gordina														
Lan intentsitate txikiko etxeguneetan bizi den biztanleria (<60 urte)	162.700	137.000	125.500	203.400	237.400	266.200	252.000	280.300	275.400	178.400	168.000	205.700	174.400	176.100
Gabezi material larria	46.400	55.500	102.900	130.600	87.800	123.400	126.900	128.200	127.000	95.500	122.900	111.400	167.600	-
Pobrezia arriskua	348.100	336.400	302.800	393.700	377.600	333.800	338.600	340.700	295.600	306.100	287.600	313.100	331.700	380.200
Pobrezian edo gizarte bazterketan erortzeko arriskuan dagoen biztanleria	470.200	445.000	439.200	552.500	520.800	514.400	482.200	521.400	486.200	456.400	400.700	449.700	445.900	-

3.7. Gizarte babeseko inbertsioa

Ipar EHko babes soziala Europan buru, Hego EHkoa Europako batez bestekoaren azpitik

Gizarte babeseko inbertsioa (BPGaren %).
2019 urtea.





Euskal Herriak 2019 urtean BPGaren %25 bideratu zuen gizarte babesera. Urte berean, zifra hori %28koa izan zen EB-27an. Euskal Herriak, hortaz, Espainia, Portugal, Islandia eta Greziaren pareko inbertsioa bideratu zuen babes sozialera. Hots, Euskal Herriko gizarte babeseko inbertsioa gertuago dago Mediterraneoko herrialdeetatik beste lurraldeetatik baino. Babes sozialari dagokionez, Europan buru dira Frantzia, Danimarka, Alemania eta Finlandia.

Gizarte babeseko inbertsioa (BPGaren %).
Euskal Herria.



3.7. Gizarte babeseko inbertsioa

Gizarte-Babeserako Estatistika Integratuen Europako Sistemaren (GBEIES) araberako funtzioetan Euskal Herriko babes sozialeko gastua EB-27ko batez bestekoaren gainetik dago umezurtz-alarguntasunari, gizarte bazterketari eta langabeziari dagokienez. Gainontzeko esparruetan, aldiz, babes sozialeko gastu-maila ez da Europako batez bestekora iristen.

Inbertsio arrakala hori bereziki handia da bi funtziotan. Batetik, Euskal Herrian familia eta seme-alabak sostengatzeko eskuhartze publikoa Europan baino murritzagoa da; hau da, seme-alaben jaiotzak eta hazkuntzak dakartzan kargak murrizteko eta beste senide batzuk mantentzeko etxeguneei ematen zaizkien diru-laguntzak urriagoak dira. Bestetik, Euskal Herrian inbertsioa murritza da etxebizitza politika publikoetan eta etxebizitzetako gastuei aurre egiteko etxeguneei ematen zaizkien laguntzetan ere.

Gizarte babeseko inbertsioa (BPGaren %).

	2000	2005	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
OROTARA														
EUSKAL HERRIA	18,9	19,8	20,8	24,0	24,4	24,4	25,2	26,0	25,6	25,1	24,8	24,5	24,4	24,9
EB-27	-	-	26,0	28,8	28,6	28,2	28,7	29,0	28,9	28,6	28,5	28,1	27,9	28,0
Katalunia	-	16,5	18,0	21,0	21,1	21,1	21,2	21,2	21,3	-	-	-	-	-
Finlandia	24,3	25,5	25,0	28,9	29,1	28,7	29,9	31,0	31,7	31,8	31,6	30,5	30,1	30,1
Eskozia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
EUSKAL HERRIA: funtzioaren arabera (ESSPROS sailkapena)														
OROTARA	18,9	19,8	20,8	24,0	24,4	24,4	25,2	26,0	25,6	25,1	24,8	24,5	24,4	24,9
Beste gastuak	*0,7*	*0,7*	*0,8*	*0,8*	*0,8*	*0,8*	*0,8*	*0,8*	*0,8*	*0,8*	*0,7*	*0,7*	*0,7*	*0,7*
Gaixotasuna/Osasun-atentzioa	5,4	5,9	6,2	6,9	6,8	6,6	6,4	6,4	6,4	6,4	6,4	6,4	6,3	6,5
Elbarritasuna	1,4	1,4	1,4	1,5	1,6	1,6	1,6	1,7	1,7	1,7	1,7	1,7	1,6	1,6
Zahartzaroa	8,1	7,3	7,7	8,6	8,9	9,2	9,7	10,2	10,3	10,3	10,3	10,3	10,5	10,6
Umezurtz-alargunak	0,9	1,9	1,9	2,0	2,1	2,1	2,2	2,3	2,3	2,3	2,2	2,2	2,1	2,2
Familia eta seme-alabak	0,6	0,7	0,8	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0	0,9	0,9	0,9	0,9
Langabezia	1,4	1,4	1,5	2,4	2,4	2,4	2,6	2,7	2,2	1,8	1,5	1,3	1,2	1,3
Etxebizitza	0,1	0,1	0,2	0,2	0,2	0,2	0,3	0,3	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2
Gizarte-bazterkeria	0,2	0,4	0,4	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,7	0,7	0,7	0,7	0,7	0,7
EB-27: funtzioaren arabera (ESSPROS sailkapena)														
OROTARA	-	-	26,0	28,8	28,6	28,3	28,7	29,1	28,9	28,6	28,5	28,1	27,9	28,0
Beste gastuak	-	-	*1,1*	*1,3*	*1,2*	*1,3*	*1,2*	*1,4*	*1,3*	*1,1*	*1,2*	*1,2*	*1,3*	*1,3*
Gaixotasuna/Osasun-atentzioa	-	-	7,3	8,0	8,0	7,8	7,9	8,0	8,0	7,9	7,9	7,8	7,8	7,9
Elbarritasuna	-	-	1,9	2,1	2,1	2,0	2,1	2,1	2,1	2,1	2,1	2,1	2,0	2,0
Zahartzaroa	-	-	9,7	10,5	10,6	10,6	10,9	11,0	11,0	11,0	10,9	10,8	10,8	10,8
Umezurtz-alargunak	-	-	1,8	1,9	1,8	1,8	1,8	1,8	1,8	1,8	1,7	1,7	1,6	1,6
Familia eta seme-alabak	-	-	2,0	2,3	2,2	2,2	2,2	2,2	2,2	2,2	2,2	2,2	2,2	2,2
Langabezia	-	-	1,4	1,8	1,8	1,7	1,7	1,7	1,6	1,5	1,4	1,3	1,2	1,2
Etxebizitza	-	-	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4
Gizarte-bazterkeria	-	-	0,4	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,6	0,7	0,6	0,6	0,6

3.7. Gizarte babeseko inbertsioa

Gizarte babeseko inbertsioa (BPGaren %).
Hego eta Ipar EH.



(*) Ipar EHko datuak Frantziar estatuari dagozkio.

Babes sozialeko inbertsio-mailari dagokionez, Frantziar estatua da Europan buru. Espainiar estatuko gizarte babesa, aldiz, ahulagoa da. Hau da, babes sozialeko politikari dagokionez, bi eredu zeharo desberdin daude indarrean Euskal Herrian. Ildo horretatik, hona hemen desberdintasun horiek ulertzeko bi datu: Hego Euskal Herrian BPGaren %24 bideratu zen 2019 urtean babes sozialera eta Ipar Euskal Herrian BPGaren %33. Izan ere, Ipar EHan etxebizitza politika, familia eta seme-alabak sostengatzeko eskuhartzea edota langabezia pairatzen dutenen babesa proportzioan nabarmen handiagoa da Hego EHan baino.

22 Ingurua

4.1. Airearen kutsadura

Euskal herritarron berotegi-efektuko gas isurpenak, ia mundu mailakoen bikoitza

Berotegi Efektuko Gasen guztizko emisioen ratioa (CO2 tona/biztanleko).



2019an Euskal Herritik berotegi-efektuko gasetan (BEG) 27.626 kilotona CO2 isuri ziren atmosferara. Zuzeneko isurpenak dira horiek. Biztanleko zifretan, 8,8 tona biztanleko. Munduan, ordea, emisioak maximo historikoetan mantendu arren, zifra hori nabarmen murritzagoa da. Edo, beste era batera esanda, Euskal Herriak munduko per capita-ko BEG isurpenak ia bikoizten ditu. Europar Batasunean biztanleko isurpen horiek ere zertxobait murritzagoak dira.

Euskal Herri osorako azken datua 2019 urteari dagokio, baina 2020 urtean, oraindik zehaztu ezin bada ere, isurpenak gutxitu ziren ekonomiaren desazkundea eta mugikortasunaren murrizketak medio. Esaterako, 2020 urtean Hego EHn garraioari loturikoak %10 inguru murriztu ziren.

Berotze globalaren eragile nagusia karbono dioxidoak (CO2) eta bestelako BEGek atmosferan duten gehiegizko presentzia da. Erregai fosilak erretzean materia solido horietan dagoen karbonoa atmosferara isurtzen da, eta honek, eguzkiaren erradiazioa harrapatzean, lurrazala berotzen du. Erregai fosilen erabilerak, hortaz, erlazio zuzena du BEG isurketekin.

Horregatik, abian dira erregai fosilen erabilera murrizteko ekimenak Euskal Herrian eta munduan. Erregai fosilekiko mendekotasunak, ordea, oso handia izaten jarraitzen du. Isurpenak murrizteko estrategia desberdinak daude indarrean, baina trantsizio energetikoa berandu hasi da eta bide luzea du egiteke.

Euskal herritar batek munduko biztanleen batez besteko isurpenak ia bikoizten ditu

Euskal Herriko berotegi-efektuko gasen isurpenek goia jo zuten 2005 urtean

Berotegi Efektuko Gasen guztizko emisioen ratioa (CO2 tona/biztanleko).

	1990	1995	2000	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
EUSKAL HERRIA	7,9	8,4	9,9	11,7	11,6	11,1	11,1	10,5	10,4	8,9	8,9	8,0	7,8	7,9	7,9	8,2	8,3	8,8	-
EB-27	11,7	10,9	10,6	10,6	10,6	10,5	10,3	9,5	9,7	9,5	9,3	9,1	8,7	8,8	8,8	8,9	8,7	8,4	7,5
Alemania	15,8	13,8	12,8	12,2	12,4	12,1	12,1	11,3	11,7	11,6	11,7	11,9	11,4	11,3	11,3	11,1	10,6	10,0	8,9
Espainia	7,6	8,5	9,8	10,4	10,1	10,2	9,3	8,3	8,0	8,0	7,8	7,2	7,3	7,6	7,4	7,6	7,5	7,1	5,9
Frantzia	9,5	9,2	9,3	9,0	8,8	8,6	8,5	8,1	8,1	7,7	7,7	7,6	7,1	7,1	7,1	7,2	6,9	6,7	5,9
Finlandia	14,5	14,2	13,8	13,6	15,7	15,4	13,8	13,0	14,4	13,0	11,9	11,9	11,1	10,4	10,9	10,4	10,6	10,0	8,8
Danimarka	14,2	15,5	13,8	12,8	14,2	13,3	12,6	12,0	11,9	11,0	10,1	10,4	9,6	9,1	9,4	8,9	8,9	8,2	7,3
Suedia	8,5	8,5	7,9	7,6	7,5	7,4	7,1	6,5	7,1	6,6	6,3	6,1	5,8	5,7	5,7	5,6	5,4	5,2	4,6
Mundua	3,9	3,8	3,8	4,2	4,3	4,4	4,4	4,3	4,5	4,6	4,6	4,6	4,6	4,5	4,4	4,5	4,5	4,5	-

Oharra: CO2 tona baliokideak biztanleko.

4.1. Airearen kutsadura

Berotegi Efektuko Gasen emisioen ratioa (CO2 tona/biztanleko).

1990 urtea

1990 urtean Euskal Herrian biztanleko 7,9 tona CO2 isuri ziren atmosferara. Garai horretan biztanleko kutsadura maila handiena sortzen zuten Europako herrialdeen artean zeuden Estonia (25,7), Txekia (19,3), Irlanda (15,8) eta Alemania (15,8). Urte berean, munduan biztanleko 3,9 tona isuri ziren, Munduko Bankuko datuen arabera.



2000 urtea

2000 urtean biztanleko 9,9 tona CO2 isuri ziren atmosferara Euskal Herrian eta orduantxe hasi zen isurpen handieneko aroa, 2005 urtean goia jo zuten arte. Urte horietan euskal herritarren isurpenek EB-27koak gainditu zituzten, krisi ekonomikoak Euskal Herria gogor kolpatu zuen arte. Bien bitartean, nabarmen murriztu zituzten isurpenak hamar urte lehenago Europan gehien kutsatzen zuten herrialdeek.



2010 urtea

2010 urtean Euskal Herriak biztanleko 10,4 tona CO2 isuri zituen. Krisi ekonomikoak isurpenen gutxitzea ekarri zuen 2014 arte. Izan ere, hazkunde ekonomikoak BEG isurpenak hauspotu zituen berriz ere Euskal Herrian. Bitartean, munduko isurpenak maximo historikoetara iritsi ziren.



2019 urtea

2019 urtean Euskal Herrian biztanleko 8,8 tona isuri ziren. Isurpen murritzagoak dira horiek errenta maila handiko munduko herrialdeekin alderatuta, Munduko Bankuko datuen arabera. Europar Batasunean, ordea, biztanleko isurpenak zertxobait murritzagoak izan ziren berriz ere Euskal Herrian baino. Luxenburgo, Islandia, Irlanda eta Txekia izan ziren Europako herrialde kutsatzaileenak. Horien artean jada ez dago Alemania.



4.1. Airearen kutsadura

Berotegi Efektuko Gasen guztizko emisioen ratioa (CO2 tona/biztanleko).
2019 urtea.



Munduan biztanleko kutsadura handiena sortzen duten herrialdeak: Qatar, Kuwait, Bahrain, Arabiar Emirerri Batuak, Kanada, Luxenburgo eta Saudi Arabia dira, hurrenez hurren.

Munduan BEG isurpenek korrelazio zuzena dute herritarren errenta mailarekin. Ikerketa desberdinek erakusten dute lurraldeen mugen baitan ere errenta maila handieneko herritarren kutsadura-maila errenta txikikoena baino handiagoa dela.

Euskal Herria, munduan errenta-maila handikoa izanik, herrialde kutsatzaileenen multzoan dago. Gainera, munduko potentzia berrien hazkunde ekonomikoak handitu egin du bertan isuritako berotegi-efektuko gas kopurua; horien artean, Txinakoa da ekonomiarik handiena. Egoera oso kezkagarria da adierazle desberdinen arabera: nazioarteko ikerketek adierazi dute gutxi falta dela munduko tenperatura itzulerarik gabeko puntura iristeko eta Parisko Akordioa berretsi zuten 192 gobernuetatik 22k soilik eguneratu du BEG isurpenak murrizteko bide-orria. Beraz, ekonomiaren deskarbonizazioa urrun da hala munduan nola Euskal Herrian.

Berotegi Efektuko Gasen guztizko emisioen ratioa (CO2 tona/biztanleko).



4.2. Aldaketa klimatikoa

Aldaketa klimatikoa iritsi da

Berokuntza-sistemen beharra tenperatura atmosferikoaren arabera (orotara graduak/urtean).



Tenperaturaren igoera areagotzen ari da eta, erregistroak daudenetik, azken zortzi urteak izan dira inoizko beroenak. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) klima globalari buruzko azken txostenak zehazten duenez, azken urtean muturreko gertaera meteorologikoek kontinente guztiei eragin diete. Euskal Herria ere aldaketa klimatiko horren eraginpean dago.

Hori dela eta, berotze-sistemen beharra geroz eta txikiagoa eta hozte-sistemena, aldiz, handiagoa da. Edonola ere, ezaugarri klimatikoak medio, Euskal Herrian berotze-sistemen beharrak nagusi izaten jarraitzen du hozte-sistemen aldean tenperatura atmosferikoa bizigarria egiteko.

4.2. Aldaketa klimatikoa

Berokuntza-sistemen beharra tenperatura atmosferikoaren arabera (orotara graduak/urtean).



Tenperatura atmosferikoaren igoera berotze-sistemen beharra murrizten ari da

Europan batez besteko tenperatura Euskal Herrian baino hotzagoa da. Horregatik, berotze-sistemekiko mendekotasun handiagoa dute. Finlandia, Norvegia, Suedia eta Estonia dira berotze-sistemen behar handiena duten herrialdeak.

4.3. Energiaren kontsumoa eta erregaiak

Energiaren %43 petroliotik eratorritakoa da Euskal Herrian

Energiaren azken kontsumoa (tep/biztanleko).
2020 urtea.





Energia kontsumoa pixkanaka murrizten ari da, eraginkortasun energetikorako ahaleginak eta ekonomiaren mantsotzea medio. 2020 urtean energiaren azken kontsumoa %9,2 murriztu zen Euskal Herrian; Europaren kasuan, murrizketa hori %5,6koa izan zen. Hala izanik ere, Euskal Herriko biztanleko kontsumoak beste behin gainditu zuen Europakoa, antzeko izaera industrialeko erregioetan bezala energia asko behar baita gurean.

Azken kontsumoko datuei erreparatuta, energiaren %43 petroliotik eratorritakoa da Euskal Herrian. Energia elektrikoak, ordea, kontsumoaren %24 asetzen du. Gas naturalak, kontsumoaren beste %22. Energia berriztagarriek, eratorriek eta bestelakoek kontsumoaren %9 osatzen dute. Ikatzak eta bere eratorriek, ostera, soilik kontsumoaren %2 osatzen dute egun.

Energiaren azken kontsumoa, energia moten arabera (%).
2020 urtea.



Oharra: Ipar EHn Frantziako biztanleko energiaren kontsumoa aintzat hartu da .

4.3. Energiaren kontsumoa eta erregaiak

Energiaren azken kontsumoa (tep/biztanleko).



Garraio sektorearen energia kontsumoa esanguratsua da Euskal Herrian, baina, batez ere, euskal nortasunaren profil industrialak bihurtzen du Euskal Herria energia kontsumo handiko lurraldea. Industria elektrointentsiboen presentzia handia da lurraldean, siderurgian, paper-fabriketan eta abarretan, eta horietako askoren ekoizpen-prozesuak ere gasaren mende daude. Jarduera horiek nabarmen nozitzen ari dira Ukrainako gerra dela eta energiaren prezioak izan duen gorakada.

Energiaren azken kontsumoa (tep/biztanleko).
2020 urtea.

Petroliotik eratorriak



Islandia, Irlanda, Belgika, Norvegia eta Finlandia dira, biztanleko kontsumoari erreparatuta, Europako petrolio kontsumitzaile nagusiak. Lurralde horien kontsumo-mailatik gertu dago Euskal Herria (0,94 tep/biztanleko) eta Europar Batasuneko batez bestekoa aise gainditzen du.

Gas naturala



Gas naturalaren kasuan, Herbehereak, Belgika, Alemania, Hungaria eta Italia dira energia kontsumo handieneko herrialdeak. Kasu honetan ere, Euskal Herriak EB-27ko biztanleko kontsumoa gainditzen du (0,48 tep/biztanleko).

Energiaren azken kontsumoa, energia moten arabera (%).

	EUSKAL HERRIA			EB-27			Alemania			Finlandia		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
OROTARA (Ktep)	7.665	7.591	6.895	942.623	937.857	885.764	200.685	200.804	193.617	25.005	24.729	23.191
OROTARA (Ktep) (%)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Ikatza eta eratorriak (%)	1,5	1,7	1,4	2,4	2,1	2,1	1,9	1,7	1,8	0,5	0,5	0,5
Petroliotik eratorriak (%)	44,6	44,4	43,4	36,5	36,9	35,0	35,0	36,1	34,9	24,5	23,6	23,7
Gas naturala (%)	22,3	21,9	22,4	21,4	21,2	21,9	26,5	26,1	26,8	2,4	2,8	3,0
Energia elektrikoa (%)	23,7	23,7	24,1	22,9	22,7	23,2	21,8	21,3	21,3	28,5	28,3	28,5
Energia berrigarriak, eratorriak eta beste (%)	8,0	8,3	8,7	16,8	17,0	17,8	14,8	14,9	15,3	44,1	44,8	44,3

Oharra: Ipar EHn Frantziako biztanleko energiaren kontsumoa aintzat hartu da .

4.4. Kontsumituriko erregaien jatorria

Gerrak asaldatutako energia merkatuaren mende

Produktu energetikoen inportazioen balioa, jatorriaren arabera (%).
Hego Euskal Herria.



Oharra: 2021 urteko inportazioetan, Espainiako kasuan, 2019 urteko kopurua aintzat hartu da.

2019 urtean Hego Euskal Herrian kontsumituriko produktu energetikoen %46 Espainiar estatutik iritsi zen (behin-behineko datuak) eta ez dago Espainiar estatuarekin izandako hartu-eman horri buruzko datu berriagorik. Nazioarteko hartu-emanari buruzko datuak, ordea, gaurkotuta daude.

Zifra horiei tiraka, aipatzekoa da 2021 urtean Hego Euskal Herriko energiaren inportazioen zati esanguratsuena Errusiatik (guztizko inportazioen %25), Mexikotik (%20), Kazakhstandik (%10), AEBetatik (%6), Libiatik (%5) eta Norvegiatik (%4) iritsi zela.

4.4. Kontsumituriko erregaien jatorria

Hego EHko produktu energetikoen inportazioen balioa, jatorriaren arabera (milioi euro).
2021 urtea.



Oharra: 2021 urteko inportazioetan, Espainiako kasuan, 2019 urteko kopurua aintzat hartu da.

Ukrainako gerrak energiaren merkatua hankaz gora jarri du munduan. Estatu gehienek estrategia energetikoa berrikusteari ekin diote eta Europan ez dira gutxi Euskal Herriak bezainbesteko mendekotasun energetikoa duten lurraldeak. Burujabetasun energetikoa lortzeak luze joko du, orain arte ez baita behar beste lehenetsi.

Gerra testuinguruan Errusiatik etorritako energiaren inportazioek murrizketa handia izan dute. 2021 urtean nazioarteko energiaren %25 Errusiatik iritsi zen. 2022ko urtarrila eta abuztu arteko bolumenean, ordea, soilik energiaren %7 izan da errusiarra (formalki, behintzat). Energiaren inportazioei dagokienez, AEBek ordezkatu dute Errusia Hego Euskal Herrian, AEBek energia inportazioak gogoz handitu baitituzte. Testuinguru nahasi honetan Brasil, Angola, Ekuatore Ginea, Libia eta Nigeriako energia inportazioak ere hazten ari dira.

4.5. Elikagaien kontsumoa

Herritarren elikadura beharrek geopolitikaren gorabeheretatik at egon beharko lukete

Euskal herritar batek
111 kg fruta,
70 kg barazki fresko,
51 kg haragi,
28 kg arrain eta
86 litro esne
kontsumitu zituen 2021 urtean

Herritarren kontsumo patroiak aintzat hartuta, eta euskal lurraldean ekoitzi ezin diren produktuak (zenbait fruta, batik bat) alde batera utzita, biztanleko 435 m2 inguru behar dira batez beste egungo kontsumo ohiturak asetzeko ekoizpen ez-intentsiboko eredu batean. Beste era batera esanda, Nafarroa Behereko azalera osoa behar da, edo San Mames zelaia 190.400 bider, euskal herritar guztiak elikatzeko. Hala ondorioztatu zen aldagai askoren azken neurketan (2017).

Euskal herritar bakoitzak, batez beste, 111 kg fruta eta 70 kg barazki fresko kontsumitu zituen 2021 urtean. Horrezaz gainera, 51 kg haragi, 28 kg arrain eta 86 litro esne kontsumitu zituen. Zerealen kontsumoa ere esanguratsua da.

Elikagai nagusien kontsumoa.
Euskal Herria, 2021 urtea.

	Mila tona	Kg./biztanleko
Barazki freskoak	209,3	69,7
Fruta freskoa	335,1	111,5
Patatak	91,4	30,3
Arrautzak (ale kop.)	539,2	179
Esnea, guztira	259,5	86,4
Esnekiak	113,0	37,4
Jogurt	35,3	11,7
Beste esnekiak	77,7	25,8
Haragia, guztira	152,4	50,6
Oilasko haragia	40,5	13,4
Txerri-haragia	30,3	10,1
Behi-haragia	22,4	7,4
Beste haragiak	59,3	19,7
Arraina, guztira	84,7	28,0
Legatza	10,2	3,4
Bakailao	5,8	1,9
Izokin	5,2	1,8
Sardina	5,2	1,7
Bestelako arrainak	17,1	5,7
Ogia	107,2	35,7
Opilak	46,1	15,3
Lekaleak	12,7	4,2
Arroza	10,6	3,5
Pastak, guztira	10,8	3,6
Azukrea	10,1	3,4
Txokolateak/kakaoak	13,5	4,5
Olioa, guztira	42,4	14,1
Olibak	10,1	3,3
Fruitu lehorrak	13,2	4,4

Oharra: Ipar Euskal Herriko bolumenaren kalkulurako Hego EHko biztanleko/kontsumoak aintzat hartu dira.

4.6. Kontsumituriko elikagaien jatorria

Euskal Herrian atzerriko hazi, fruitu oliodun eta zereal asko kontsumitzen dira

Hego EHko elikagaien eta edarien atzerriko inportazioen bolumena, motaren arabera (%).





Oharra: Espainiar estatuko inportazioen fluxua ez da aintzat hartu.

Hego Euskal Herriak atzerrira 2.200 mila tona elikagai esportatu zituen 2021 urtean. Baina Espainiar estatuarekiko hartu-emana ere aintzat hartzeko datuetan urtebete atzera egin beharra dago. Hala, 2020 urtean Hego Euskal Herriak 3.300 mila tona elikagai eta edari esportatu zituen bere mugez gaindi, Espainiar estatua helmuga zuten fluxuak barne.

Urte berean Hego Euskal Herriko barne merkatuaren hartu-emanak 1.600 mila tona elikagai eta edari bildu zituen. Inportazioetan, aldiz, 4.600 mila tona mugitu ziren. Horietatik, 1.600 mila bat tona Espainiar estatutik etorri ziren eta beste 3.000 atzerritik. Kanpo-merkataritzaren saldoa, beraz, negatiboa izan zen (-1.250 mila tona). Nolanahi ere, janari bolumen handi horien atzean badira ñabardura anitz, besteak beste, elikagai eta edarien balio erantsi edo kaloriko desberdinak. Ez dago Ipar Euskal Herriko datua zehaztasunez ezagutzeko daturik.

Atzerritik Hego Euskal Herrira iritsitako elikagaien artean, nabarmentzekoa da hazi eta fruitu oliodunek, hala nola zerealek, osatzen dutela inportazioen zati handiena. Hazi eta fruitu oliodunek atzerritik ekarritako elikagai bolumen osoaren herena osatu zuten (2021). Animalientzako pentsuek ere kanpotik iritsitako elikagaien zati esanguratsua dira. Frutak, barazkiak eta lekaleak, hala nola koipeak eta olioak, atzerritik kontsumitzen diren elikagaien bolumen garrantzitsua osatzen dute.

4.6. Kontsumituriko elikagaien jatorria

Hego EHko elikagaien eta edarien inportazioen bolumena (mila tona).
2021 urtea.



Oharra: 2021 urteko inportazioetan, Espainiako kasuan, 2019 urteko kopurua aintzat hartu da.

Elikagaien inportazioen jatorriari dagokionez, elikagaien bolumen handiena Espainiatik, Frantziatik, Brasiletik, Alemaniatik, AEBetatik, Indonesiatik, Herbehereetatik eta Ukrainatik etorri zen (2021).

Zerealen kasuan, atzerriko inportazioen zati esanguratsua Frantzia eta Alemaniatik dator. Hazi eta fruitu oliodunen kasuan, ordea, Brasil da Hego Euskal Herrian inportatzaile nagusia. Baina AEBek ere hazi eta fruitu oliodunen inportazio bolumen garrantzitsua bildu zuten. Indonesia eta Ukrainatik ekarritako elikagai eta edarien artean, aldiz, koipeak eta olioak nagusitu ziren. Gerra testuinguruan Ukrainako inportazioek ere arreta berezia merezi dute. Izan ere, 81 mila tona koipe eta olio iritsi ziren Hego Euskal Herrira, 2021 urtean atzerritik inportaturiko koipe eta olio guztizko bolumenaren %26, alegia.

Iturriak

DEMOGRAFIA

1.1. Biztanleria	EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
1.2. Biztanleriaren dentsitatea	EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT, EUSKALGEO eta GAINDEGIA.
1.3. Biztanleriaren adin egitura	EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
1.4. Jaiotzak	INE, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
1.5. Heriotzak	INE, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
Oharrak:	2022ko azaroan berrikusitako datuak.

EKONOMIA

2.1. BPG: urte arteko hazkundea	EUSTAT, Eusko Jaurlaritza, NASTAT, Nafarroako Gobernua, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
2.2. BPGa biztanleko	EUROSTAT eta GAINDEGIA.
2.3. Balio erantsiaren egitura	EUSTAT, Eusko Jaurlaritza, NASTAT, Nafarroako Gobernua, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
2.4. Ondasun eta zerbitzuen esportazioak	Espainiako Industria, Komertzio eta Turismo Ministerioa, C-Intereg, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
2.5. Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	Espainiako Industria, Komertzio eta Turismo Ministerioa, C-Intereg, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
2.6. Ondasun eta zerbitzuen inportazioen merkataritza-balantza	Espainiako Industria, Komertzio eta Turismo Ministerioa, C-Intereg, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
2.7. Berrikuntza jarduerak	INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
2.8. Lanaren produktibitatea	INE, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
2.9. Enpresa inbertsioa	EUSTAT, NASTAT, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
2.10. Lansariak	INE, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
2.11. Herritarren errenta	INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
Oharrak:	2022ko azaroan berrikusitako datuak. Ipar Euskal Herrirako datuak estimatu dira, 2.6. atalan ezik, Pirinio Atlantikoetakoak edota Frantziakoak baliatuz.

GIZARTEA

3.1. Biztanleriaren formazio-maila	INE, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
3.2. Herritarren jarduera	INE, INSEE, EUROSTAT, Erresuma Batuko Estatistika Bulego Nazionala eta GAINDEGIA.
3.3. Enplegu-maila	INE, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
3.4. Langabezia-maila	EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT, OECD, Erresuma Batuko Estatistika Bulego Nazionala, Belgikako Gobernu Federala eta GAINDEGIA.
3.5.Kontsumo prezioen bilakaera	INE, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
3.6. Pobrezia arriskua 'Europa 2020' estrategiako neurketaren arabera	INE, INSEE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
3.7. Gizarte babeseko inbertsioa	EUSTAT, NASTAT, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, INSSE, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
Oharrak:	2022ko azaroan berrikusitako datuak. Ipar Euskal Herrirako zenbait datu estimatu dira, Pirinio Atlantikoetakoak edota Frantziakoak baliatuz.

INGURUA

4.1. Airearen kutsadura	EUSTAT, NASTAT, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskal Hirigune Elkargoa, Agence Régionale d´Evaluation Environnnement eta Climat, INSSE, EUROSTAT, Munduko Bankua eta GAINDEGIA.
4.2. Aldaketa klimatikoa	EUROSTAT, Nazio Batuen Erakundea (NBE) eta GAINDEGIA.
4.3. Energiaren kontsumoa eta erregaiak	EUSTAT, NASTAT, EUROSTAT eta GAINDEGIA.
4.4. Kontsumituriko erregaien jatorria	Espainiako Industria, Turismo eta Komertzio Ministerioa, C-Intereg eta GAINDEGIA.
4.5. Elikagaien kontsumoa	Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, INE, INSEE eta GAINDEGIA.
4.6. Kontsumituriko elikagaien jatorria	Espainiako Industria, Turismo eta Komertzio Ministerioa, C-Intereg eta GAINDEGIA.
Oharrak:	2022ko azaroan berrikusitako datuak. Ipar Euskal Herrirako zenbait datu estimatu dira, Pirinio Atlantikoetakoak edota Frantziakoak baliatuz.